



OT-011/20-PTP-MEM Eibar

**DEBABARRENEKO LURRALDE PLAN PARTZIALAREN
JARRAIPEN-MEMORIA
MEMORIA DE SEGUIMIENTO
PLAN TERRITORIAL PARCIAL DE EIBAR (BAJO DEBA)**

Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza
Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroa
Vitoria-Gasteiz, noviembre 2020

Aurkibidea

0.- HASIERAKO OHARRAK	4
0.1. Jarraipen-memoriaren xedea	4
0.2. Aurreko jarraipen-memoria.....	4
0.3. Ondoren onetsitako Lurralde Plangintza eta Plangintza Sektoriala.....	6
0.4. Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura eta 2/2006 Legea moldatzea.....	7
I.- LURRALDE-EREDUA. LPP-REN OINARRIZKO PROPOSAMENAK.....	8
1. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA.....	8
1.1. LPPko zehaztapenak.....	8
1.2. Espazio babestuen eta Batasunaren Intereseko Lekuen antolamendu-politika.....	10
1.3. LPP LAGekin bat etortzea.....	11
1.4. LPP LPSein edo beste sektore-plangintza batekin integratzea.....	12
1.5. Ondorioak.....	14
2. LANDA-HABITATA.....	14
2.1. LPPko zehaztapenak.....	14
2.2. LPP LAGekin bat etortzea.....	15
2.3. Ondorioak.....	15
3. HIRIGUNEA.....	15
3.1. LPPko lurralde-eredua.....	15
3.2. LAG, Gidalerroak Eraldaketa Ardatzen arloan.....	16
3.3. Bizitegiatarako kokalekuak.....	18
3.4. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruak.....	23
3.5. Hiri-berroneratzearen LAG.....	27
3.6. Hiri Hazkundearen Perimetroa.....	28
4. PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK.....	29
4.1. Paisaia.....	29
4.2. Kultura-ondarea.....	31
4.3. Natura Ondarea.....	32
4.4. Baliabide Turistikoak.....	32
4.5. Ondorioak.....	33
5. BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA.....	34
5.1. Ura.....	34
5.2. Energia.....	35
5.3. Ekonomia zirkularra.....	36
5.4. Ondorioak.....	37
6. MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA.....	37
6.1. Mugikortasun Multimodala.....	37

6.2.	Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna.....	38
6.3.	Bide Mugikortasuna.....	38
6.4.	Trenbide-mugikortasuna eta -logistika	40
6.5.	Portuak	41
6.6.	Ondorioak	41
7.	EKIPAMENDUAK.....	42
7.1.	LPPko zehaztapenak.....	42
7.2.	Politika sektorialak.....	42
7.3.	Ondorioak	42
8.	ZEHARKAKO GAIAK	42
II.-	ONDORIOAK	44
II.0.	Ondorio orokorrak.....	44
II.1.	Ingurune fisikoa	44
II.2.	Landa-habitata.....	44
II.3.	Eraldaketa Ardatzak.	45
II.4.	Bizitegi-kokaguneak.....	45
II.5.	Bizitegi-kuantifikazioa	46
II.6.	Jarduera ekonomikoak	46
II.7.	Hiri Berrikuntza	46
II.8.	Hiri Hazkundearen Perimetroa	47
II.9.	Paisaia, kultura- eta natura-ondarea eta turismo-baliabideak;.....	47
II.10.	Baliabideen Kudeaketa Jasangarria.....	47
II.11.	Mugikortasuna eta Logistika.....	48
II.12.	Ekipamenduak	49
II.13.	Zeharkako Gaiak.	49
II.14.	Gobernantza. Lurralde-adierazleak	49
III.-	ADIERAZLEAK	50
IV.-	PLANGINTZA. UDALPLAN, 2019	59

0.- HASIERAKO OHARRAK

0.1. Jarraipen-memoriaren xedea

Eibarko (Debabarrena) eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala behin betiko onartu zen apirilaren 12ko 86/2005 Dekretuaren bidez. LPPren antolamendu-arauen 5.3. artikulua jarraipen-memoria egiteko beharra adierazten du, zehaztapenen betetze-maila egiaztatze aldera:

«..., lau urtetik behin, Eusko Jaurlaritzako sailek eta lurraldearen antolaketa eskumena duten Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-aldundiek memoria bat egingo dute, non azalduko baita noraino bete diren planen xedapenak eta, behar izanez gero, identifikatzen diren desbideratzeak leuntzeko edo zuzentzeko behar diren neurrien proposamenak. Memoria hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliko zaio, batzordeak haren berri izan dezan».

Memoria hau uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bitartez EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onetsi ostean idatzi da, eta LPPn jasota dauden zehaztapenak aztertzen ditu, LAGen egiturari jarraiki, eta horretan jasotako gaiak aintzat hartuta, hala nola azpiegitura berdea, hiri-berroneratzea, eraldaketa-ardatzak, paisaia, mugikortasun jasangarria, ekonomia zirkularra, eta zeharkako zenbait gai; adibidez, osasuna, klima-aldaketa, eta abar.

Beraz, jarraipen-memoriaren xedea da indarreko LPPren garapen-maila aztertzea, 2019ko LAGekin eta horiek lurralde-plangintzari ezartzen dizkioten zehaztapenekin alderatuta.

0.2. Aurreko jarraipen-memoria

2013an zehar Eibarko eremu funtzionaleko LPPren jarraipen-memoria bat idatzi zen, zehaztapenen garapen-maila eta lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresnen betetze-maila aztertzeko. Memoria hura Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen osoko bilkuran aurkeztu zen 2014ko urriaren 13an, Laudioko, Debagoieneko, Araba Erdialdeko eta Arabako Errioxako eremu funtzionaleko LPPen jarraipen-memoriekin batera.

Memoria hartan ondorioztatzen zen LPPko zehaztapenak hura indarrean jarri ondoren idatzitako hirigintza-plangintzetan jaso direla eta proposatutako Lurralde Ereduak indarrean jarraitzen zuela. Honako hauek dira lehen memoria haren ondorioak:

II. ONDORIOAK

II.1. INGURUNE FISIKOA

1. Udal Plangintzak proposamenak garatzea

- LPP behin betiko onetsi ostean behin betiko onartzen diren Udal Plangintzek Lurzoru Urbanizaezinetako Babes Bereziko eremuak jasotzen dituzte.
- Mallabia eta Soralue udalerrietan, plangintza Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta Lurralde Plan Partziala baino lehenagokoa da; beraz, ez dago LAGetako Ingurune Fisikoaren antolamendurako kategorietarako doituta.

2. Eredua Eremu Babestuen eta Batasunaren Intereseko Lekuen ildoan gauzatutako politikekin bat etorraraztea.

- Espazio Babestuak eta Batasunaren Intereseko Lekuak deklaratzeko politika koherentea izan da LPPko proposamenekin. Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartu dira Arno, Izarraitz eta Artibai ibaiko BILen Kontserbazio Bereziko Eremuak, eta Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopoa deklaratu da.

II.2. AZPIEGITURAK

- **Errepideak**
LPPn jasotzen diren proposamenak koherenteak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plangintza Orokorrekin eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Errepideen Plangintzekin. Proposamen horietatik, Eibar eta Gasteiz bitarteko AP1 autobidea osatuta dago eta Eibarko saihebidearen hirugarren fasea gauzatu da, baita Deba eta Mutriku bitarteko N-634 eta GI-638 lotunea ere, Deban, eta zubi berria egin da Deba ibaiaren gainean. Debari dagokionez, ez da ikusten hirigunea A8 autobidearekin lotzeko saihebide edo lotunea egiteko mugimendu sektorialik.
- **Trenbideak**
LPPn jasotako proposamenak EAEko Trenbide Sareko LPSko proposamenetara doituta daude. Linea hedatzeko eta geraleku berriak egiteko proposamenak garatzen lan egiten ari da. Gainera, tranbiaren Maltzaga-Bergara trazadura berriaren proposamena mantentzen da, Debagoienarekin konektatuko duena.
- **Obra hidraulikoak**
Ego ibaiaren ibilgu irekia leheneratzeko lanak gauzatu dira, hala nola Ego Gain jarduketa, Eibarren.
- **Saneamendua**
Arroko saneamendu-helburuak lortzeko lan egiten ari da, ur zikinen araztegiak gauzatu baitaude eta funtzionatzen ari baitira, baina gauzatzeke dago Mendarotik Elgoibarrerako saneamendu-ponpaketa.
- **Hondakinak**
LPPn hondakinen arloan jasotzen diren proposamenak koherenteak dira Gipuzkoako Hiri Hondakinen LPSrekin; horretan, transferentzia-estazioak jasotzen dira, hondakinen gaikako bilketarako, baita Lapatz hondakindegia ere, birziklatzen ez diren hondakinetarako.
- **Energetikoa**
Mutrikuko marea-energiaren instalazioaren kokapena koherentea da LPPrekin eta Deba-Mutriku esparruko elektrizitate-hornikuntzako linea indartzeko proposamenarekin, esparruaren egungo eta etorkizuneko bizitegitarako garapena kontuan hartuta. Gainera, proposamenak autohornikuntza elektrikoan eta tokiko baliabide berriztagarrien aprobetxamenduan sakontzen du.

II.3. HIRI-KOKALEKUAK

II.3.1. Bizitegitarako lurzorua

- Lurralde Ereduari dagokionez, nabarmentzekoa da LPPk bizitegi-garapen lehenetsirako eremu definitzen dituen lurzorua, neurri batean, udal-plangintzetan jasota daudela, eta oraindik udal-plangintzan jaso gabe dauden lurzorua garapenerako erabilgarri geratzen direla. Baina LPPk proposatzen dituen eta udal-plangintzan jasota ez dauden lurzoru artean, malda handiko lurzoru batzuk daude Mutriku, Deban eta Elgoibarren, eta zailtasunak egon litezke horiek garatzeko. Bestalde, Soraluze, Ermua eta Mallabia udalerrietan, lurzoru gutxi geratzen da kalifikatzeko, nahiz eta LPPk udalerririk horietarako erreserbatzen duen lurzoru-kantitatea ere txikiagoa den.
- LPPn maximotzat aurreikusten diren 6.405 etxebizitzetatik, 2.639 garatu dira 2005-2011 aldian; horietatik, 1.031 babes-erregimenen baten mende daude, hala nola babes ofizialeko etxebizitzak, udal etxebizitza tasatuak edo etxebizitza sozialak. Bestalde, LAGen Aldaketak 3.939 eta 5.625 etxebizitza artean zenbatesten ditu 2010-2017 aldirako, eremu funtzional guztiak.
- 2013ko UDALPLANEKO datuen arabera, bizitegi-ahalmena 4.453 etxebizitzakoa da, eta horiek LPPren aurreikuspenen eta LAGen berrazterketaren barruan sartzen dira. 4.453 etxebizitza horietatik, 1.308 Mutriku-Deba itsasertzeko esparruaren barruan daude; 897 etxebizitza, Elgoibar-Mendaro tarteko esparruan; eta gainerako 2.268 etxebizitzak barnealdeko esparruan, hots, Eibar, Soraluze, Ermua eta Mallabian.
- Garapen handiena izan duen udalerrria Eibar da, 1.183 lizentzia eman baitira guztira. Udalerrriaren bizitegi-ahalmena 1.761 etxebizitzakoa da eta LAGen Aldaketan proposatzen den bizitegi-kuantifikazioa gainditu egiten da, haietan 1.531 etxebizitza baitzeuden aurreikusita Eibarrerako. Baina aurreikusitako etxebizitzetatik, 834 etxebizitza Txonta auzoa berritzeari dagozkio, eta hori bertan behera geratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai bidez.
- Eremu funtzionaleko gainerako udalerrietan, bizitegi-ahalmena bat dator LPPk aurreikusten dituen bizitegi-kuantifikazioarekin. LAGen Aldaketari dagokionez, Soraluzen eta Mendaron proposatzen den etxebizitza kopurua txikiagoa da Aldaketaren berrazterketan aurreikusten den minimoa baino. Gainerako udalerriei dagokienez, Mutriku, Deba, Elgoibar, Ermua eta Mallabiko zifrak ere bat datoz LAGen Aldaketako aurreikuspenekin.

II.3.2. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua

- LPPk jarduera ekonomikoak garatzeko xedatzen dituen lurzoruaren kokapena, hein handi batean, udal-plangintzan dago jasota, Mallabiko Urtia eta Goitondo industrialdeen hedapena izan ezik. Halaber, nabarmentzekoa da badaudela LPPk xedatzen dituen eta udal-plangintzak kalifikatutako lurzoru batzuk garatzeko, ziurrenik lursailen malda handien, uholde-arriskuaren edo sarbideen ondorioz zailtasunak daudelako, eta horiek bideragarritasuna baldintzatzen dutelako.
- 2005-2013 aldian, lurzoruaren 59,63 ha garatu dira Jarduera Ekonomikoetarako, LPPn proposatzen diren lurzoru berrien 100,79 ha-tik; eta plangintzan kalifikatutako lurzoruaren 53,63 ha hutsik daude. Baina azalera horietako lurzoruak zailtasunak dituzte malda handi, uholde-arrisku edo sarbide zailengatik, eta zalantza dago bideragarriak diren. Arazoak izan ditzaketen lurzoruak alde batera uzten baditugu, hau da, Elgoibarren garatu gabe dauden lurzoruak alde batera utziz gero, azalera hutsa 40,81 ha-ra jaisten da; horietatik, 9,24 ha Itziarko industrialdekoak dira, Deban, eta 8,72 ha, berriz, Erisono industrialdekoak, Eibarren. Gainerako 22,85 ha-k meteorizatutako, sakabanatutako eta eremu funtzional guztian zehar banatutako lurzoruak dagozkie. Hortaz, ondoriozta daiteke gaur egun jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruak ia agortuta dagoela.
- Eremu funtzionalaren ezaugarri orografikoak direla eta, zaila da jarduera ekonomikoetarako eta industria-jarduerarako egokiak diren lurzoru berriak aurkitzea. Baina arazo hori zenbait modutan konpon daiteke:
 - Lurzoru kalifikatu hutsak garatzea ,40,81 ha (Elgoibarko lurzoru ez-garatuak kenduta).
 - Industrialdeak bestela diseinatzea; pabiloi altuagoak, eta horietarako sarbideak, hainbat solairutan.
 - Erabilera mistoak sustatzea, hiriguneetako bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduerak hustea saihestuz.
 - Industrialde zaharkituak birgaitzea.
 - Aurkitu nahi den lurzoruak bilatzea.
 - Pabiloi hutsetan jarduerak ezartzea; krisialdi ekonomikoaren ondorioz, ez dira gauzatu enpresa-ekimen guztiak eta urbanizatutako eta eraikitako industria-sektoreak jarduerarik gabe geratu dira. Lurzoru industrial huts gutxi daudenez, proposamenarekin batera lehendik egindako inbertsioak optimizatzeke proposamena egin behar da, lehendik dauden pabiloi hutsetan jarduerak ezarri.

II.4. EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

II.4.1. Eskualde-ekipamenduak

- Ekipamenduei dagokienez, jarduketa esanguratsuen Elgoibar-Albitxurin Lanbide Heziketako Zentro berria garatzea izan da. Bestalde, Lehen Hezkuntzako zenbait ikastegitan zabaltzeko lanak egin dira eta ez da jarduketa garrantzitsurik aurreikusten epe laburrean.

II.4.2. Espazio libreak

- LPPn zehazten diren aisia-eremu naturalak Espazio Librean Sistema Orokor gisa jasotzen dira udal-plangintzetan. Bidegorri-trazaduren proposamenei dagokienez, bat datoz Bizikleta Bideen LPSrekin, eta barnean hartzen dituzte LPPn lurraldera sartzeko proposatzen diren beste trazadura batzuk.

II.5. Azken ondorioa

- LPP behin betiko onetsi zenetik, proposatutako lurralde-eredua aintzat hartu da ondoren garatutako lurralde-plangintzako tresnetan, politika sektorialetan eta hirigintzako udal-plangintzetan.
- LPPk udalerrietako politika sektorialetarako eta hirigintza-politikarako erreferentziakoa izan den lurralde-eredua eskaini dio eremu funtzionalari.
- Erabilitako ereduak egun ere indarra duela uste da, eta baliozkoa dela datozen urteetarako.

0.3. Ondoren onetsitako Lurralde Plangintza eta Plangintza Sektoriala.

2005ean behin betiko onetsitako Debarreneneko LPP ez da ondoren aldatu. Harrezkero, lurralde-plangintzan eragina duten honako lege hauek onetsi dira:

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, Establezimendu komertzial handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.

- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.

Lurralde-plangintzari dagokionez, honako dokumentu hauek onetsi dira:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretua.
- Lurralde Plangintza Sektoriala:
 - EAEko Nekazaritza eta Basogintzaren LPS, irailaren 16ko 177/2014 Dekretua
 - Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSren aldaketa, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretua.
 - Hezeguneen LPS, urriaren 30eko 231/2012 Dekretua
 - 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena; hori ekainaren 30eko 6/2014 Foru Arauaren bitartez aldatu zen.
 - 24/2009 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena.
 - 43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa, EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen arloko Plana behin betiko onartzen duena.
- Bereziki Zaindu beharreko Guneak izendatzea
 - Artibai Ibaia, ES 2130011, Mallabia udal-mugartean, urriaren 16ko 251/21012 Dekretuak izendatua.
 - Arno, ES 2120001, Mutriku eta Mendaro udal-mugarteetan, urriaren 16ko 220/2012 Dekretuak izendatua.
 - Izarraitz , ES 2120003, Deba eta Azpeitia eta Azkoitia udal-mugarteetan, Urola Kostako eremu funtzionalean, urriaren 16ko 217/2012 Dekretuak izendatua.
 - Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestua deklaratu da, otsailaren 10eko 34/2009 Dekretuaren bidez. Gainera, otsailaren 10eko 33/2009 Dekretuaren bidez, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onetsi zen.

0.4. Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura eta 2/2006 Legea moldatzea.

Eremu funtzionala osatzen duten zortzi udalerrietan, LPP behin betiko onetsi ondoren onartu zen udal-plangintza behin betiko. Baina Deba, Mutriku eta Eibarren, plangintzaren hasierako onespina LPP indarrean jarri baino lehenagokoa denez, LPP behin betiko onartzeko dekretuaren bigarren xedapen iragankorrek bat, ez zuten LPPko zehaztapenak betetzeko betebeharririk. Azken urteetan, hirigintza-jarduera garrantzitsuena honako hau izan da:

- Deba: a) motako arau subsidiarioak, 2007an behin betiko onartu zirenak. Plangintzaren aldaketa garrantzitsuena Duquesa eta Urkulu harrobiei buruzkoa da.
- Mutriku: b) motako arau subsidiarioak, 2007an behin betiko onartu zirenak eta aldaketarik izan ez dutenak. Mutrikuko portuaren Plan Bereziari dagokionez, 2003an onetsi zen behin betiko.
- Mendaro: HAPO 2008an onetsi zen behin betiko eta ez du aldaketarik izan.
- Elgoibar: HAPO 2012an onetsi zen behin betiko, eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruak bertan behera utzi ziren Arriaga ingurunean.
- Eibar: HAPO 2006an onetsi zen behin betiko, eta, 2008an, Testu Bategina. Ondoren, aldaketak izapidetu dira Txonta auzoko antolamendurako eta sistema orokor berriak sortzeko, hala nola ospitale berria eta garbigunea.
- Ermua: HAPO 2015ean onetsi zen behin betiko eta 2016an aldatu zen, jarduera ekonomikoetarako Ureta I eta II esparruetan.
- Mallabia: HAPO 2016an onetsi zen partzialki eta bertan behera utzi zen partzialki; dena den, hirigintza-araudia ez da oraindik argitaratu.
- Soraluze: HAPO 2017an onetsi zen behin betiko eta ez du aldaketarik izan.

I.- LURRALDE-EREDUA. LPP-REN OINARRIZKO PROPOSAMENAK.

LPPren araudiko 7. artikulua honela definitzen du Lurralde Eredua: Ingurune Fisikorako, Kokalekuen Sistemarako, Azpiegitura eta Zerbitzuetarako eta Eskualdeko Ekipamenduetarako xede zehatzak, irizpideak eta xedapenak jasotzen dituen LPPren oinarriko zehaztapenen multzoa. LPPren memoriaren arabera, helburu orokorrak honako hauek dira:

- Ingurune Fisikoari dagokionez, lurzoru-okupazio unitateak orekatzea, baso naturalak babestea, basa-flora eta -faunako espezieak kontserbatzea, uren kalitatea hobetzea eta landa-paisaia babestea.
- Bestalde, Eremu Funtzionaleko kokalekuen antolamenduaren helburu orokorra Ermua, Eibar eta Soraluzeko esparruaren gainsaturazioa murriztea da, baita itsasertzeko lurralde-esparrua sustatzea ere (Deba eta Mutriku), eta, hein txikiagoan, Elgoibar eta Mendaroko, eta Mallabiko, lurralde-esparrua sustatzea. Biztanleria finkatzea lortu nahi da, eta, etxebizitzari dagokionez, 8.519 etxebizitza berri proiektatzen dira. Jarduketa publikoaren oinarri nagusia hirigintza-berrikuntzako eragiketak dira, baita babes- eta zaharberritze-eragiketak ere.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erakundearen helburu nagusia ekimen desberdinak hartzeko behar adina lur eskaintzea da, eta horiek modu lehenetsian kokatzeko esparruak zehaztea, baita hirigintza-prozesuetatik kanpo geratu behar diren esparruak zehaztea ere. Gainera, dentsitate txikiagoko ehuna lortu nahi da, eta zaharkituta dauden eta hiri-bizitzarekin bateraezinak diren jarduerak lekualdatu nahi dira.
- Ekipamenduei dagokienez, helburua lehendik dauden zerbitzuak hobetzea da. Azpiegitura eta zerbitzuetan, eskualde mugakideekiko komunikazioa hobetu nahi da, ur-hornikuntzako sarea hobetu eta eskualdearen autohornikuntza energetikorantz eboluzionatu nahi da.

1. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

1.1. LPPko zehaztapenak

Eremu funtzionala Debabarreneko eskualde naturalean eta Ego ibaiadarrean eratzen da. Esparruak bereizgarri ditu itsas eragina eta topografia berezia, barne-ibar estuekin, mazela handiekin eta bizitegi- eta industria-okupazio dentsoarekin ibar-hondoetan. Lurzoru urbanizaezinak Eremu Funtzionalaren azaleraren % 94,68 dira, 2019ko Udalplaneko datuen arabera, eta honela daude okupatuta: konifero exotikoen sailak (% 50), nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala eta laboreak (% 24), baso autoktonoak (% 14), larreak (% 7), lurzoru urbanizatuak eta ez-emankorrak (% 5).

Konifero exotikoen sailak nagusitzen dira eremu funtzionaleko basoetan, baso naturalen aurretik, eta horrek desoreka larria eragiten du lurzoruen okupazioan. Gainera, habitat naturalak galdu dira, hala nola padura-estuarioaren sistema, eta uren kalitatea kritikoa da. Hori guztia dela eta, LPPk honako helburu hauek proposatzen ditu:

- Lurzoruen okupazio-unitateak orekatzea, interes estrategiko ekologikoko okupazioak sustatuz.
- Baso natural autoktonoen azalera mantendu, leheneratu eta handitzea
- Basa-fauna eta -floraren espezieak kontserbatzea, baita horiek aurrera egiten duten habitatak ere
- Uren kalitatea eta drainatze-sare naturalaren funtzionamendua hobetzea
- Sistema karstikoaren gainean definitutako lurpeko akuiferoaren birkarga-zikloak behar bezala funtzionatzen jarraitzen duela bermatzea.
- Ondare naturalistiko, arkeologiko, historiko eta kulturaleratzat katalogatutako elementuak babestu eta kontserbatzea

- Lehen mailako jarduerak babestea eta garatzen laguntzea, enplegua sortzen duen balio ekonomikoa eta lurraldearen kudeaketa-eragileak izaki
- Eremu funtzionalean dauden interes bereziko naturaguneen babes eraginkorra bermatzea.

LPPren Lurralde Eredua landa-lurzoruaren zonakatzean zertzen da, hauen arabera: lurzoruaren ahalmena eta eboluzionatzeko, natura hobetzeko eta interes ekologikoa zein paisaia-interesa duten balioak mantentzeko aukerak. Lurzoru urbanizaezinetarako, bi maila ezartzen dira:

- Mantendu eta Babestu beharreko Garrantzi Bereziko Esparruak, izaera loteslearekin.
- Ingurune Fisikoaren kategorizazio orokorra zonakatzea, gutxi gorabeherako izaerarekin.

Mantendu edo babestu beharreko garrantzi bereziko esparruak

Mantendu, hobetu edo leheneratu beharreko espazioak dira, balio naturalistikoak, ekologikoak, paisaia-balioak eta balio zientifiko-kulturalak dituztenak, baita nekazaritza-interes bereziko lurzoruak ere. Honako azpikategoria hauek zehazten dira.

- Interes naturaleko esparruak: azpikategoria honetan sartzen dira eremu funtzionaleko naturagune babestuak eta interes naturalistikoko eremuak, eta erregimen iragankor bat ezartzen da, dagozkien Baliabide Naturalak Antolatzeako Planekin ordezkatuko dena.
 - o Naturagune Babestuak: parke naturalak eta biotopo babestuak. Honako hauek jasotzen dira: Arno mendia-Olatz esparrua, Mendaro-Mutrikun (KBE – ES 2120017); Izarraitz parke naturala Deban (KBE-ES2120018), Artibai ibaia Mallabian (KBE-ES2130011), Mutriku-Saturrarango labarrak.
 - o Interes Naturalistikoko Guneak: honako esparru hauek mugatzen dira: Haranerreka-Kilimon Mendaron; Karakate-Irurutzeta-Agerre-Buru Elgoibar-Soraluzen; Andutz, Arranomendi sakana, Aitzuri punta, Mendata-Sakoneta eta Elorriaga parkea Deban; Arrate parkea eta Urko-Usartza parkea Eibarren; Betiondo parkea Ermuan; eta Eizaga-Zaldibar Kurutzetako Gaina parkea, Ermua eta Zaldibar artean.
- Interes Hidrologikoko eta Itsasertzeko esparruak: kategoria honetan sartzen dira hornikuntzarako ustiatzen diren lurpeko akuiferoak, uholde-arriskuko guneak, itsasertzeko eremuak eta akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarriak diren eremuak. Eremu horien erregulazioa Hezeguneen, Itsasertzaren Babes eta Antolamenduaren eta Ibaiertz eta Erreka-ertzei dagozkien LPSen arabera da.
 - o Bilketa-arroak: Arranbide sakana Elgoibarren.
 - o Uholde-arriskuko guneak: Deba ibaiko uholde-arriskuko guneak barne hartzen ditu, udalerrri guztietan eta Ego ibaiaren tarteetan Eibarren eta Ermuan, baita horren ibaiadarretan ere.
 - o Itsasertza eta Padurak: itsasertzeko babes-zerrenda mugatzen du, Zumaiarekiko mugatik Ondarroarekiko mugaraino.
 - o Lurpeko urak. Akuiferoen babesa: barnean hartzen du Kilimon, Arno eta Izarraizko mendigune karstikoa, akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasun handiko eremua.
- Interes zientifiko eta kultureko eremuak: zenbait elementu jasotzen ditu, interes geologikoko esparru gisa.
 - o Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak: interes geologikoko zenbait puntu adierazten dira, hala nola hondartzak, meategiak, failak, eta abar.
 - o Historiaurreko arkeologia-aztarnategiak: Gipuzkoako Karta Arkeologikoan jasota dauden historiaurreko arkeologia-aztarnategiak jasotzen dira; adibidez, Karakateko trikuharriak.
 - o Haitzuloak: Praileaitz nabarmetzen da, Deban, eta baita Haranerreka-Kilimon haitzuloak ere, Mendaron.
- Nekazaritza-intereseko eremuak: nekazaritza-aukera bereziak eskaintzen dituzten lurzoruak jasotzen dira, eta hor sartzen dira Gipuzkoako Mapa Agrolologikoko nekazaritza-lurzoru onenak eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko Balio Estrategiko Handiko lurzoruak.
- Hobetu edo leheneratzeko eremuak. Honako azpikategoria hauek definitzen dira:

- Kokapen geografiko berezietako harizti, pagadi, lizardi eta artadi naturalak, beren kokalekuarengatik eta eskaintzen dituzten aukerengatik, Interes Naturaleko Esparruen kategoriara igaro daitezkeenak.
- Erabiltzen ez diren meategi, harrobi eta hondakindegietan beharrezkoa da ingurumena leheneratzeko lanak egitea.
- Baldintzatzaile gainjarriak
 - Lurpeko akuiferoak: bilketa-arro gisa eta lurpeko ur gisa adierazten direnak dira
 - Uholde-arriskuko guneak: Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralean jasotakoak; Deba eta Ego ibaietako arriskuguneak.

Ingurune Fisikoaren Kategorizazio orokorra

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategoriak definitzen dira, 1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zehaztutakoarekin bat. Garapen-plangintzan sartu dira iradokizun eta orientabide gisa, eta Nekazaritza eta Basogintzako LPSk zehazten duenera moldatuko dira.

- Babes Bereziko Eremua: hobekien kontserbatutako baso autoktonoak eta ekosistema berezien aztarnak dituzten eremuak dira. Eremu horietan giza jarduketa mugatzen da, egungo ustiaketa-prozesuak kontserbazio-xedeetara moldatuz.
- Ingurumena Hobetzeko Eremuak: gaur egun andeatuta dauden baso naturalak eta larre-landaredia zein sastrakak, leheneratze eta hobekuntza bidez Babes Bereziko kategoriarantz eboluzionatzeko aukera dutenak. Giza jarduketa mugatzen da, eboluzio naturalari lagunduz. Ekosistema kontserbatzeko eta leheneratzeko jarduerak sustatzen dira.
- Larre menditarren eremuak: mendiguneetako artzaintza-paisaiak barne hartzen dira, abeltzaintza estentsiboa mantentzera bideratuta daudenak. Natura babesteko, paisaia eta baliabide hidrológicoak mantentzeko jarduerak sustatuko dira, eta abeltzaintza eta aisia-baliabideak antolatuko dira.
- Lurrazaleko uren babes-eremuak: helburua lurrazaleko drainatze-sistemak, uraren ingurumen-kalitatea, ibai-ibilguak eta ibaiertzak babestea da. Okupazio- eta ustiaketa-erabilerak mugatu egiten dira eta berroneratze-jarduerak sustatzen dira.
- Baso-eremuak: lursailen ekoizpen-ahalmena basogintza-erabilera eta -ustiaketa jarraitura mugatzen da. Helburua basogintza modu antolatu eta mugagabeen burutzen dela bermatzea da.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala: ahalmen agrologiko handiagoko lurzorua barne hartzen ditu. Nekazaritza-lurzoru onenak babestera bideratuta daude.

Baldintzatzaile gainjarriak

- Lurpeko akuiferoen zaurgarritasuna, hala nola Izarraizko mendigune karstikoa; hareharrizko eremuak Oiz-Zengoitia mendigunean eta Deba ibaiaren ibarra; eta lurgaineko akuiferoak, hala nola Arranbide sakana Elgoibarren. Bereziki kutsatzaileak diren jarduerak kontrolatu egingo dira, hala nola hondakindegia, hondakinen biltegitratzea, industriak, produktu kimikoen erabilera, abeltzaintza, eta abar.
- Higadura-arriskuekiko zaurgarriak diren eremuak: malda handien, lodiera gutxiko lurzoruen eta lurzoru ezegonkorren ondorioz, higadura-arriskua izan dezaketen eremuak jasotzen dira.
- Uholdeekiko zaurgarriak diren eremuak: uholde-arrisku handiko eremuak definitzen dira, Ibaiertz eta Erreka-ertzen LPSrekin eta Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralarekin bat etorritik.
- Babes-erregimenak dituzten eremu eta elementuak: interes naturalistiko eta kulturala duten eremu, espazio eta elementu guztiak jasotzen ditu.

1.2. Espazio babestuen eta Batasunaren Intereseko Lekuen antolamendu-politika.

LPP behin betiko onetsi zenetik, eremu funtzionaleko espazio babestuen Kontserbazio Bereziko Eremu hauek izendatu dira:

- Artibai Ibaia, ES 2130011, Mallabia udal-mugartean, urriaren 16ko 251/21012 Dekretuak izendatua.

- Arno, ES 2120001, Mutriku eta Mendaro udal-mugarteetan, urriaren 16ko 220/2012 Dekretuak izendatua.
- Izarraitz , ES 2120003, Deba eta Azpeitia eta Azkoitia udal-mugarteetan, Urola Kostako eremu funtzionalean, urriaren 16ko 217/2012 Dekretuak izendatua.

Halaber, Deba eta Zumaia arteko itsasertzaren Biotopoa deklaratu da, otsailaren 10eko 34/2009 Dekretuaren bidez. Gainera, otsailaren 10eko 33/2009 Dekretuaren bidez, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana onetsi zen.

Azkenik, erantsi behar da Basa eta Itsas Fauna eta Florako Espezie Mehatxatuak Kudeatzeko Planak onetsi direla (Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoak) eta EAeko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioa prestatu duela Aniztasun Biologiko eta Geologikoko Zuzendaritzak; horretan, honako hauek sartu dira, besteak beste: Sakonetako Flysch karetsua, Deba-Zumaia arteko goi Kretazeoko Flysch hareatsua, Eibarko Dikea, Elgoibarko Silla, Soroluzeko Pillow labak, Karakateko ebaketa bolkanikoa, Mutriku-Debako karst pinakularra edo Debako Septariak.

1.3. LPP LAGekin bat etortzea

Lurralde-plangintzan ingurumen fisikoa antolatzeari dagokionez, LAGen Aplikazio Arauen 3.4.a) artikulua honako hau xedatzen du:

- a) *Lurralde-plangintza partzialak antolamendu-kategorien zonakatzea eta baldintza gainjarriak mugatuko ditu, eta dokumentu honetan ezarritako erabilerak arautzeko modua haren eremu funtzionalera egokituko du. Baldin eta lurralde-plangintzaren eremuaren barruan ingurumen-balioengatik edo Urdaibaiko Biosfera Erreserban egoteagatik babestutako guneren bat badago, horien sektore-legerian jasotako zonakatzea eta erabilerak arautzeko modua txertatuko ditu.*

LPPk LAGetako kategorizazioa eta baldintzatzaile gainjarriak jasotzen ditu, 2019ko Gidalerro berrietan sartutako klima-aldaketari eta korridore ekologikoei buruzko baldintzatzaileak izan ezik. LPPn proposatzen den ingurune fisikoa antolatzeke erabilera-matrizearen arauketa bat dator LAGetako ingurune fisikoaren matrizearekin.

Espazio babestuei dagokienez, Eremu Funtzionalean jasotako Kontserbazio Bereziko Eremuak LPP indarrean jarri ondoren deklaratu ziren, beraz eraikinen eta erabileren erregimen bat jasotzen da eta dagozkien Baliabide Naturalak Antolatzeke Planak aintzat hartuko dira, idazten direnean.

LAGEk azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuak txertatu dituzte ingurune fisikoaren antolamenduan. LAGen aplikazio-araudietako 4. artikulua honako hau xedatzen du lurralde-plan partzialetarako:


4. art. Azpiegitura Berdearen eta Ekosistemen Zerbitzuen arloko gidalerroak

Art.4.6. Lurralde Plan Partzialen kasuan:

- a) *EAeko eta Eremu Funtzionaleko eskalari dagokion azpiegitura berdea mugatzea eta hirigintza-plangintzarako baldintzak ezartzea, toki-mailara arteko jarraitutasuna bermatzeko. Hiri-garapeneko perimetroen inguruko eraztun berdeak haien eskalako azpiegituraren zatitza hartuko dira.*
- b) *Jarraitutasun ekologiko eraginkorra lortzeko irizpide, neurri eta ekintzak ezartzea: landaredia eta ekosistemak leheneratzea, nekazaritza-matrizea iragazkurtu eta konektore ekologikoak eratzen dituzten elementuak berrezartzea, eta baita nekazaritza-erabilera tradizionalak mantentzea ere.*
- c) *Azpiegitura berdeak azpiegitura grisekin dituen interakzio-puntuak identifikatzea eta interakzio horiek kudeatzeko neurriak ezartzea.*
- d) *Ekosistemen zerbitzuen ebaluazioa kontuan hartzen duten adierazleak barne hartzea.*

- e) *Lurralde-eskalako proposamenak osatzeko, dagozkien betearazpen-neurriak eta udal-mailaz gaindiko erakunde esku-hartzailearen finantzaketa-neurriak jasoko dira LPPn. Horretarako, erakundeak koordinatuta arituko dira, proposamenek programatu eta finantzatzeko.*

LAGetan azpiegitura berdetzat jasotzen dira Arno, Izarraitz eta Artibai ibaiko Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Deba-Zumaia itsasertzeko Biotopoa, LPPn Babes Bereziko eremuaren kategoria dutenak. Gainera, LAGetan honako korridore ekologiko hauek aurreikusten dira: Arno-Izarraitz, Arno-Urdaibai, Karakate-Aizkorri, Karakate-Izarraitz, Karakate-Udalaitz, Pagoeta-Arno, Pagoeta-Izarraitz, Urdaibai-Areitio-Goierri-Arriola, eta Artibai eta Debako ibai-korridoreak. Halaber, LPPk funtzio anitzekotzat eta natura-interesekotzat jasotzen ditu eremu hauek: Andutz mendia, Haranerreka ibarra, Karakate-Irukurutzetza-Agerre Buru, Mutriku-Saturranan itsaslabarrak.



Debabarreneko LPPko zehaztapenek barnean hartzen dituzte LAGetako azpiegitura berdea eratzen duten eremuak, eta babes lotesleko kategoria ematen diete, natura intereseko eremu edo interes hidrologikoko itsasertz izendatuta. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, korridore ekologikoak barne hartu beharko lirateke eta toki-mailan identifikatu beharko lirateke azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren arteko interakzio-eremuak, eta adierazleak ezarri beharko lirateke

1.4. LPP LPSekin edo beste sektore-plangintza batekin integratzea

EAEko Ibaiertzak eta Erreka Ertzak Antolatzeako LPS.

Deba ibaiaren ibilgua eta Ego ibaiadarra, baita Debabarreneko gainerako ibilgu eta ubideak ere, hala nola San Lorenzo Elgoibarren, Kilimon Mendaron edo Galdona Mutriku, LPPko Lurrazaleko Uren Babeserako kategorian jasotzen dira. Gainera, Ibai eta Erreken LPSn eta Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralean, Interes Hidrologikoko Eremuen kategorian adierazten diren uholde-arriskuko gunek jasotzen dira.

Araudia Ibaiertz eta Erreka-ertzen Antolamenduko LPSren araberakoa da, baina oinarriko erregimen bat ezartzen du eta, horren arabera, oro har, ez da eraikinik baimentzen. Erabilera-erregimen gisa, kontserbazio-jarduerak, ingurumen-hobekuntzako ekintzak eta azpiegitura

hidraulikoak sustatzen dira. Debehatuta daude nekazaritza-industriak, hondakindegia eta zabortegeak, eta, oro har, eraikitze-erabilerak.

EAEko Hezeguneen LPS.

Debako padura interes hidrologikoko itsasertz gisa dago jasota LPPn eta, araudiari dagokionez, Hezeguneen LPSko araudiaren mende dago, haren muga orokorrekin. Hezeguneen LPSk Debako itsasadarra jasotzen du, eta babes bereziko eremutat kategorizatzen ditu Casacampoko padura eta itsasadarraren ertzak, Lasako meandroan, eta nekazaritza eta abeltzaintzako eremu edo landazabal gisa, edota ingurumen-hobekuntzako eremu gisa, Lasako meandroko gainerako eremuak.

2008 eta 2010 bitartean, Lasao eta Larrazabal eremuen leheneratzea joratu zen, espezie inbaditzaileak desagerrarazi, ertzak garbitu eta Larrazabalgo ihitokiaren ingurumen-hobekuntzaren bidez.

Itsasertza Babesteko eta Antolatzeke LPS

LPPk itsas-zerrendan Zumaia-Debako eta Mutriku-Saturrarango labarrak berezitat jotzen ditu, Babestu beharreko Garrantzi Bereziko Esparru - Itsasertz Intereseko Eremu gisa kategorizatuta. Eremu horiek Babes Zorrotzeko Eremu gisa daude jasota Itsasertza Babestu eta Antolatzeke LPSn. Eremu horietarako LPPren araudiak LPSk ezartzen duen araudia aipatzen du eta eraikuntza- eta erabilera-araudi oinarritzko bat ezartzen du.

EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS

Nekazaritza eta Basogintzako LPSk definitzen dituen Balio Estrategiko Handiko eremuak, funtsean, LPPko babestu beharreko esparruen Nekazaritza Intereseko Eremuen kategoriako berak dira.

Eremu horietarako, izaera orokorrarekin, lehendik dauden eraikinak erreformatzea eta zabaltzea baimentzen da, baita ustiategiari loturiko eraikuntza berriak ere. Horiez gain, erabilera onargarri gisa jasotzen dira honako hauek: berotegiak, abeltzaintza, baso-erabilera, aisia estentsiboa, zerbitzu-azpiegiturak, onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak, ustiategiari loturiko bizitegi-erabilera eta ehizako eta arrain-hazkuntzako jarduerak. Araudi hori bat dator Nekazaritza eta Basogintzako LPSko erabilera-matrizean ezarritakoarekin.

Nabarmentzekoa da Balio Estrategiko Handikotzat kategorizatutako lurzoruak daudela, LPPn jasota ez daudenak, hala nola Mintxeta eremuaren eta A8 autobidearen arteko lurzoru bat Eibarren, edo Mendaroko ospitalearen mendebaldean dauden lurzoruak. Gainera, LPPk bizitegi-garapenak proposatzen ditu lurzoru horietarako, nahiz eta ez diren garatu. LPPa etorkizunean berrikusten denean, kontuan hartu beharko dira Nekazaritza eta Basogintzako LPSko Balio Estrategiko Handiko lurzoruak, izaera loteslearekin.

Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE):

LPPk interes naturaleko esparrutat jasotzen ditu Arno-Olatz, Izarraitz eta Artibai ibaiko Kontserbazio Bereziko Eremuak, nahiz eta oraindik deklaratu gabe zeuden LPP behin betiko onetsi zenean. Izaera iragankorreko zenbait arau ezartzen dira, Baliabide Naturalak Antolatzeke dagozkien Planekin ordezkatu beharko direnak. Erabilera lehenetsi gisa ezartzen da ekosistema kontserbatu, babestu eta ingurumenaren ikuspegitik hobetzea. Erabilera onagarritzat jasotzen dira lehendik dauden nekazaritza-erabilerak, abeltzaintza, basogintza, erauzketa-erabilera –kontserbazioaren xedearekin bateragarria bada–, aisia estentsiboa, eta onura publiko eta gizarte-intereseko azpiegitura eta eraikinak.

1.5. Ondorioak

1.- LPPko Ingurune Fisikoaren kategorizazioak babestu beharreko natura-esparruak jasotzen ditu eta koherentea da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako kategorizazioarekin, bai antolamendu-kategorietan, bai baldintzatzaile gainjarrietan, korridore ekologikoei eta klima-aldaketari dagozkienetan izan ezik. Bi azken horiek kontuan hartu behar dira LPPren etorkizuneko berrikuspen batean.

2.- LPPk Arno-Olatz, Izarraitz eta Artibai ibaia espazio babestuak jasotzen ditu, nahiz eta horiek LPP behin betiko onartu ondoren deklaratu diren Babes Bereziko Eremu.

3.- Ingurune fisikoaren zonakatzea eta LPPk proposatutako araudia koherenteak dira Ibai eta Erreken, Itsasertzaren eta Hezeguneen Antolamendurako Lurralde Plan Sektorialekin. Nekazaritza eta Basogintzako LPSren kasuan, LPPk Elgoibar eta Mendaroko Balio Estrategiko Handiko eremuetara egokitu beharko lituzke zehaztapenak. Kasu guztietan, LPPk dagozkion eremuen mugatze grafikoa jasotzen du eta oinarritzko araudi bat ezartzen du, dagokion LPS aipatzen duena.

4.- Azpiegitura Berdeari eta Ekosistema Zerbitzuei dagokienez, LPPk horrela aipatzen ez dituen arren, hirigintza-plangintzarako babes-kategoria lotesleetakoa batean jasotzen ditu LAGetako Azpiegitura Berdea osatzen duten elementu gehienak. Korridore ekologikoak kontuan hartu behar dira LPPren etorkizuneko berrikuspen batean.

2. LANDA-HABITATA

2.1. LPPko zehaztapenak

Ingurune fisikorako gidalerro orokorreari buruzko LPPko 10.4. artikulua honako hau zehazten du:

«Landa-garapena eta natura-baliabideen zentzuzko erabilera sustatzeko helburuarekin, lurraldea zonakatu egin beharko da eta natura-baliabideen ustiapen jarraituarekin bat datorren erabilera-araudia izan beharko du. Horretarako, zehazten da ikerketa aplikatuko eta ingurumen-hezkuntzako jarduerak soluzioak garatzen lagundu behar dutela bazterreko lurren erabilera adimenduna lortzeko, eta soluzio teknikoak eskaini behar dizkietela tokiko landa-biztanleei natura-baliabideen kudeaketa eta ustiapeneko arazoei dagokienez».

LPPren memorian adierazten denez, «euskarriaren landazabal-antzeko eskualdeko landa-paisaiaren kalitatea zaindu eta babestea». Horretarako, nekazaritza eta abeltzaintza, eta basogintza babestea proposatzen da, enplegua sortu, eta landa-biztanleria finkatzen duten jarduerak direlako eta lurraldearen zati handi bat kudeatzeko balio dutelako. Xede horrekin, zehazki, nekazaritza eta abeltzaintzako landazabalaren, basogintzako lurzoruen eta larre menditarren kategoriak proposatzen dira, eta horien mugaketan kontuan hartuko dira paisaia-ondareko elementuak.

Larre Menditarren kategorian abeltzaintza-jarduera estentsibo jasangarria mantentzera bideratutako lurzorua sartzen dira, mendiko baso- eta artzaintza-sistemak kontserbatzeko estrategia global baten parte izateko.

Baso-eremuetan, baso-erabilera modu antolatuta eta mugagabeen bermatu nahi da, arrisku naturalen prebentzioak ezartzen dituen mugak aintzat hartuta.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako Landazabalaren kategoriaren xedea nekazaritza-lurzoru onenak babestea da, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera produktiboan mantentzea ahalbidetzeko. Kategoria horretan sartzen dira Nekazaritza eta Basogintzako LPSn Nekazaritza eta Abeltzaintzako lurzoru gisa eta Landazabal - Balio Estrategiko Handiko eremu gisa zehaztutako lurzorua.

Gainera, landa-esparruak paisaiaren ikuspegitik babesten dira, ingurune fisikoa errespetatzen duten antolamenduak sustatuz, nekazaritza- eta abeltzaintza-asmoko eraikin gehiago baimenduz landaguneetan eta bizileku-hazkundera mugatuz bizitegi-asmoko landaguneetan.

2.2. LPP LAGekin bat etortzea

Landa-habitatak berebiziko rola du lurralde- eta ingurumen-kudeaketan, eta mehatxuak jasaten ditu, hala nola hiritartze-prozesuak, jarduerak bertan behera uztea eta lurzoruen prezioaren inflazioa. Landa-habitataren alorrean LAGetan proposatzen diren helburuak honako hauek dira:

- Balio Estrategiko Handiko lurzoruak babestea, landa-espazioa babestu eta sustatzeko ingurune fisikoaren kudeaketarako tresna gisa.
- Nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-jarduera sustatzea, elikagaiak hornitzen dituzten jarduerak izaki.
- Lehendik dauden nekazaritza-lurzoruak babestea eta behar baino gutxiago erabiltzen diren lursailak aktibatzea.
- Ezagutza-transferentzia, berrikuntza eta lankidetzaren sustatzea.
- Nekazaritzarekin zerikusia duten ekosistemak lehengoratzeko, babestea eta hobetzea
- Landaguneen izaera eta irudia babestea
- Inklusioa sustatzea eta genero-ikuspegia kontuan hartzea
- Ekipamendu eta zerbitzuen erabilgarritasuna bermatzea.
- Klima-aldaketara egokitzea sustatzea.

2.3. Ondorioak

1. LPPk Nekazaritza eta Basogintzako LPSko Nekazaritza- eta Abeltzaintza kategoria eta Landazabala - Balio Estrategiko Handia kategoria mugatzen ditu, eta haien araudira jotzeko dio. Gainera, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak enplegua sortzen duten jarduera gisa babestea aurreikusten du, eta landaguneak babestea proposatzen du, asmoaren araberrako baldintzak ezarriz. Ildo horretan, LPP bat dator LAGek landa-habitataren arloan emandako gidaleroekin.
2. Landa-habitatetako lurralde- eta ingurumen-kudeaketako funtzioetan sakondu beharko litzateke, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea sustatuz eta ikuspegi berriak txertatuz, hala nola gizarteratzea edo klima-aldaketa.

3. HIRIGUNEA

3.1. LPPko lurralde-eredua

2019ko adierazleen arabera, 72.843 biztanle ditu, eta 34.992 etxebizitza, 2019ko Udalplanaren arabera. Hala, eskualdeko batez besteko etxebizitza-dentsitatea oso altua da (115 etxebizitza / ha, 2019ko adierazleen datuen arabera, eta EAEko batezbestekoa 60,72 ha da). Eibar (160 etx. / ha), Ermua (140 etx. / ha) eta Soraluze (137 etx. / ha) nabarmentzen dira. Beste muturrean Deba (79 etx. / ha), Mutriku (71 etx. / ha) eta Mallabia (49 etx. / ha) daude.

Dentsitate altu horri jarduera ekonomiko zaharkituen presentzia gehitu behar zaio; horiek distortsioak eragiten dituzte, batez ere Eibarko, Ermuko eta Soraluzeko hiri-ehunetan. Hori guztia orografiak baldintzatzen du, Deba eta Ego ibaiek zeharkatutako ibar sakonekin eta, ondorioz, ibar-hondoak okupatzen dituzten lurzoru hiritartuekin.

Eremu funtzionala hiru esparrutan banatzen da, horren karakterizazioaren eta lurralde-bokazioaren arabera, eta esparru horietako eragiketak adierazten dira: Itsasertzeko esparrua (Mutriku – Deba), tarteko esparrua (Elgoibar – Mendaro) eta barnealdeko esparrua (Eibar – Ermua – Mallabia – Soraluze).

LPPren helburu nagusiak, kokalekuen antolamendurako, honako hauek dira:

- Eibarko lurralde-esparruaren (Ermua, Eibar eta Soraluze) saturazioa murriztea eta itsasertzeko esparrua (Deba – Mutriku) sustatzea, baita Elgoibar (Elgoibar – Mendaro) eta Mallabiko lurralde-esparrua ere.
- Behar adina lurzoru eskaintzea jarduera ekonomikoen ekimenak jasotzeko, eta okupazio-esparru lehenetsiak zehaztea, baita hiritartze-prozesutik kanpo utzi beharrekoak ere.
- Ekoizpen- eta bizitegi-eremuen kokapen- eta ingurumen-eskakizunak sakon eraldatzeko aukera eskaintzea.

Kokalekuetarako helburu orokorrak kontuan hartuta, helburu zehatzak ezartzen dira udalerrri bakoitzerako, bizitegi-garapenen eta jarduera ekonomikoen arabera.

Mutriku-Deba

Joera demografikoak aldatzeko oinarria dira. Eskualdeko bizitegi-parkearen hazkundera horietarantz zuzenduko da, barnealdeko esparrua arintzeko. Itziarren nolabaiteko bizitegi-hazkundera aurreikusten da, industrialdea sustatzeko, eta Saturrarango gunearen bizitegi-hazkundera kontrolatu nahi da.

Elgoibar-Mendaro

Eremu funtzionalaren erdigunean daudenez, haien pisu funtzionala handitu behar dute. Debarrena eskualdearen barnealdeko industria-eskariaren zati bat Elgoibarrerantz zuzendu behar da, okupazio-aukerak eskaintzen baititu. Mendaron trenbideari loturiko bizitegi-garapenak erakar daitezke, baita ospitaleari loturiko eskualde-ekipamenduren bat ere. Ezinbestekoa da Haranerreka-Kilimon babestea eta Deba ibaiaren ertzei balioa ematea, oinezkoentzako ibilbideekin eta espazio libreekin.

Eibar-Ermua

Eibarrek eskualde-burutza gisa jarduten du. Hirigunea leheneratzeko jarduketak aurreikusten dira, ekonomia dinamizatzeko eta beharrezko den irudi-aldaketa lortzeko faktore gisa. Hazkundera hiri-kalitateterantz bideratu behar da, eta ez kantitateterantz. Eragiketa horietan zuzkidurari, bizitegiei eta hirugarren sektoreari loturiko alderdiak integratu behar dira, industria-erabilera zaharkituak dituen hiri-ehuna berreskuratzea ahalbidetuz.

Ermuari dagokionez, esparruko suspertze demografikoaren muina izan behar da. Udal- eta auzo-mailako zuzkidura-jarduketak osatu behar dira. Bizitegien arloko jarduketek, Eibarren bezala, berroneratzera eta hirigunea arintzera zuzenduta egon behar dute.

Soraluze

Berroneratze-arazo handienak dituen udalerrria da, Eibar eta Ermuaren hiri-kongestioko arazo bera baitu. Helburu lehenetsia hirigune historikoa eta hiri-ehuna leheneratzeko birgaitze integrala egitea da, hazkunde-mugak kontuan hartuta.

Mallabia

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru alternatiboa da, Eibar-Ermuan sartzen ez diren ekimenei leku egiteko. Lurzoru-erabilerari dagokionez, udalerrriaren tamainak berak mugatu egiten du; horregatik, bizitegi-eskaintza asmo hori duten gunetara mugatu behar da, eta etxebizitza kopuru berria lehengora. Landa-paisaiaren kalitatea babestu egin behar da, baita nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduerak ere, enplegua sortzen duten eta landa-biztanleria finkatzen duten jarduerak izaki.

3.2. LAG, Gidalerroak Eraldaketa Ardatzen arloan

Hiri ertainen indartze, egituratze eta garapen jasangarria eta horien lurralde-garapena lortzeko, izaera oro har lineala duten lurralde-esparruak proposatzen dira, alegia, Eraldaketa Ardatzen figura. Lurralde-esparru horiek garraio kolektiboa dute, eta hiri ertainen garapena egituratu dute. Gainera,

horien protagonismoa handiagoa izango da jasangarritasun-irizpideei esker, eta hiriak betetzea saihestuko da ibar-hondoetako esparru sentikorretan.

Eraldaketa-ardatzak hiri-eremuak egituratu, berritu eta garatzeko, eta espazio libreak babestu eta hobetzeko proiektuak dira, ibaiertzen berreskurapen aktiboa bultzatuz, korridore ekologiko modura jardunez eta ardatzetako azpiegitura berdea eta zeharkako korridoreak elkarlotuz.

LAGetako 9. artikulua honako gidalerro hauek jasotzen ditu LPPtarako Eraldaketa Ardatzen arloan:

1.- *Lurralde Plan Partzialek, Eraldaketa Ardatzei dagokienez, honako zehaztapen hauek garatuko dituzte:*

- a) *Antolamendu-irizpideak eta Eraldaketa Ardatzak konfiguratzeko beharrezkoak diren ekintzak barnean hartzea, Eremu Funtzionaletako burutzen eta azpiburutzen hiri-sistemaren definizioaren osagarri gisa.*
- b) *Eraldaketa Ardatzetan txertatzen diren ibai-ibilguak eta urbazterreko espazioak korridore ekologiko bihurtzea.*
- c) *Eraldaketa Ardatzetan honako hauek biltzea: garraio kolektiboko sistemetarako euskarri diren elementu linealak, hiri-berrikuntzako eremuak eta hirigintza-erabilerarik gabe izan behar diren espazio libreak.*
- d) *Urbanizazio jarraituak ekiditea, urbanizatu gabeko lurzoru-poltsak gaineratuz, lurralde-elementu natural eta hirikoen artean oreka finkatuz.*
- e) *Saihesbideak edo errepide alternatibo berriak egin direlako funtzionaltasuna galdu duten errepide-tarteak berriz diseinatzea, tarte horiek ekobulebar bihurtuta, Eraldaketa Ardatzen hiri-eremuetako bide-euskarri izateko.*
- f) *Sakabanatutako sareak berritu, trinkotu eta artikulatzea lehenestea, nukleo tradizionalen hiri-irudia hobetu eta nortasun-ezaugarriak indartuta, hazkunde berrien aurrean.*
- g) *Soilik garraio kolektiboko sistemetarako izango diren plataformak txertatzea, geltokiei hiri-zentralitateko nodoen izaera emanez, etxebizitzetarako, lantokietarako eta ekipamenduetarako askotariko erabilerekin, baita aparkalekuetarako erabilerarekin ere, oinezkoen eta bizikleten ardatz nagusiekin trukea eta konexioa errazteko lagungarri izan daitezkeenak.*
- h) *Hirigintzako eta arkitekturako diseinu bioklimatikoaren printzipioak sustatzea, Eraldaketa Ardatzen ingurumen-jasangarritasuneko elementutzat hartuta.*

2.- *Eraldaketa-ardatz bakoitzaren Lurralde Plan Partzialak kontuan hartuko ditu horietako bakoitzerako jasotako gidalerroak (memoriaren 6.1.3. apartatuko IV. puntua, «Eraldaketa-ardatzak, eremu funtzionaleko»).*

3.- *Lurralde-eskalako proposamenak osatzeko, dagozkien betearazpen-neurriak eta udal-mailaz gaindiko erakunde esku-hartzailearen finantzaketa-neurriak jasoko dira LPPn. Horretarako, erakundeak koordinatuta arituko dira, proposamenok programatu eta finantzatzeko.*

Debarrenen eremu funtzionalaren kasu zehatzerako, eraldaketa-ardatza bertan barne hartutako udalerrien garapena artikulatzeko ekimen gisa proposatzen da, erakargarritasun eta maila altuagoko hirigunea taxutzeko asmoz. Hirigune horren inguruan, hiria berritzeko eta eremuan dauden eskualde-arloko hornidura eta ekipamenduak hobetzeko jardunak bultzatu beharko lirateke.

Honako gidalerro hauek planteatzen dira:

a.1 *Eraldaketa-ardatzaren antolamenduan sartzea Ermua eta Deba arteko N-634 errepidea eta Maltzagatik Bergarara doan GI-627 errepidea, Debagoieneko mugaraino, apurka-apurka ekobulebar bihurtzeko prozesua.*

a.2 *Euskotrenen linea hiriarteko mugikortasunerako garraio kolektiboko euskarri garrantzitsu gisa erabili dadin bultzatzea, Eremu Funtzional mugakideekin konexioak erraztuz, baita Bilborekin eta Donostiarekin ere. Bilbo-Donostia aldiriko metropoli-zerbitzuaren garrantzia azpimarratzen da, ibilbide osoan zehar jarraipena duena.*

a.3 Antolamenduaren helburu gisa txertatzea Deba ibaiaren ertzak leheneratzea eta hobetzea, ibaia bera ingurunearen esparru naturalei konektatutako ingurune-korridore gisa hartzea, zeharkatzen dituen hiriguneak hobetzeko lagungarri izan behar duena, uholde-arriskuak aintzat hartuta.

a.4 Hiriguneak berroneratzeko eta arintzeko jarduketak eta hirigune historikoen birgaitze integratua lehenestea, horretarako perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzoruak berrerabilita, lurzoru berriak okupatzearekiko alternatiba gisa. Horri dagokionez, LPPn eta udal-plangintzetan hiria berritzeko eremuak eta esku-hartzeko lehenetsitako eremuak identifikatuko dira.

a.5 Deba haranean barrena kokatutako hiri-garapenen, alde batetik, eta landa-esparruen, hiri-inguruko parkeen eta ingurunean kokatutako aisialdiguneen, bestetik, arteko egituraketa eta integrazio egokia bermatzea; horretarako, eremu horiek konektatzea ahalbidetuko duen oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideen sarea finkatu eta hobetu behar da.

a.6 Debabarreneko Lurralde Plan Partzialean iparraldea-hegoaldea lurralde- eta ekologia-iragazkortasuna bermatzea Areitiotik, Urdaibai-Goierri korridorearen bitartez.

LPPko Lurralde Ereduan jasotako proposamenak koherenteak dira Debabarreneko Eraldaketa Ardatzeko proposamenekin, eta apustu garrantzitsua egiten da hiri-berroneratzearen eta hiriguneak arintzearen alde, baita trenbidearen trazadura eta oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea hobetzearen alde ere.

Eraldaketa Ardatzerako proposatzen diren helburuak betetzeko lanetan jarraitu behar da, hala nola Deba ibaiaren ertzak leheneratzen, hiri- eta landa-garapenak egituratzen, eta Urdaibai-Goierri korridorearen iragazkortasun ekologikoa sustatzen, Areitiotik.

3.3. Bizitegiarako kokalekuak

Bizitegiarako kokalekuei dagokienez, barnealdeko dentsitatea murrizteko helburu orokorraz gainera, honako helburu hauek definitzen dira:

- Hiriguneak arindu eta berroneratzea
- Lurzoru-eskaintza lau aukera desberdinetan bideratzea: barne-erreforma, garapen endogenoa, eskualde-garapena eta bigarren bizitegia.
- Hirigune historikoen birgaitze integratua
- Lehen etxebizitza eskuratzeko egokiak diren eremuak eskuragarri jartzea
- Ahalmen ertain eta handiko sektore ekonomikoetarako eremu egokiak eskuragarri jartzea
- Lurzoruen eskaintza eskuzabal eta malgua egitea

Etxebizitza-eskaintza globala ezartzen da Eremu Funtzionalerako, baita Birgaitze Integratuko Eremuak garatzea ere Ermuan eta Soraluzen. Lurzoru-eskaintza lau mailatan aurreikusten da:

- % 30 barne-erreforman, udalerriko
- % 30, udalerrri-mailako garapen berrietan
- % 30, eskualde-mailako garapen berrietan
- % 10, bigarren bizilekuetan

Hiri-bilbean txertatuta dauden industria-esparruei dagokienez, horiek distortsioak eragiten dituzte bizitegi-bilbean; beraz, eremu horiek dentsitate ertaineko bizitegi-eremuekin ordezkatzea aurreikusten da. Ildo horretan, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Deba eta Mutriku udalerrietan birgaitze integratuko programak aurreikusten dira.

- Ermuan autobideko lotune zaharraren ondoko eremua birmoldatzea aurreikusten da, baita Engranajes Ureta eremua ere, San Lorenzo auzoan.

- Eibarren Txonta, Matsaria, Asua Erreka eta Alfa industrialdeak birmoldatzea aurreikusten da.
- Elgoibarren Urasandi berritu nahi da, Deba ibaiaren ezkerreko ertzean.

Esparru horietako batzuk, gainera, administrazioaren etxebizitza-arloko ekintza espezifiko esparru gisa definitzen dira. Ildo horretan, administrazioak jarduteko lehentasunezko zat adierazitako jarduketak guztiak honako hauek dira:

- 1.- Etxebizitza hutsak alokatzea: Ermua, Eibar eta Elgoibarren 260 etxebizitza inguru berreskuratzea proposatzen da.
- 2.- Lurzoru-politika:
 - Lurzoru kalifikatuen kudeaketa eta garapena: Txonta Eibar eta beste 780 etxebizitza; Asua Erreka Arane, 690 etxebizitza
 - Lurzoru berriak sortzea Deba, Mutriku, Mallabia eta Mendaroko hiri-garapen txikietan; eta Elgoibar eta Sorluzeko hiri-berrikuntza. 2.550 etxebizitza.
 - Eraikuntza-programa (Visesa, udaletxeak, sustatzaile pribatuak)
 - Lurzoru-jarduketak lehentasunezko etxebizitzaren sustapen publikorako: Eibar, Ermua, Elgoibar eta Sorluzeko hiriguneen hiri-berrikuntzako eremuak.
 - Berreskuratzeko edo eraldatzeko beste eragiketa batzuk:
 - Babes- eta birgaitze-eragiketak: Ermua, Sorluzeko, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko hirigune historikoak; Altzola eta Olasogain auzoak Elgoibarren; Asilo-Atxuri-Zubia eremua Sorluzeko.

3.3.1. Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura moldatzea.

Debarreneko LPPk udalerriri bakoitzerako egiten dituen proposamen zehatzak aztertu dira, 2019ko Udalplanean udal-plangintza bakoitzerako jasotakoarekin konparatuta.

DEBA – a) 2007 motako arau subsidiarioak

LPPk Debako udalerrirako bizitegiarako lurzoruen 88,9 ha aurreikusten ditu hirigunearen ekialdean, berriki Elizburu sektorean garatutako lurzoruen ondoan eta hego/hego-mendebaldean, saihesbidean eta egin berri den errepidean bermatuta (Mutrikuko errepideko biribilgune berritik N-634 errepideraino, Itziarreko norabidean, behin hirigunea pasata). Halaber, Itziarko hirigunearen mendebaldean 19,70 ha-ko lurzoru aurreikusten da. Aurreikuspen horiek guztiak dentsitate baxuko etxebizitzetarako dira eta ez dira jasotzen Debako plangintzan; udalerriri horretan oraindik ia 800 etxebizitzako bizitegi-ahalmena dago hiri-lurzoru finkatuetan eta ez-finkatuetan.

MUTRIKU – b) 2007 motako arau subsidiarioak

Mutrikuko udalerrian, hirigunearen ipar-ekialdean 27,40 ha-ko erreserba bat dago, plangintzan zati batean jasotzen dena eta garatu dena, nahiz eta ez guztiz. Hego/hego-ekialdean, lurzoru gehiago aurreikusten dira, dentsitate baxuko 76,17 ha-ko guztizko azalerarekin, plangintzan jasota ez daudenak. Garapen horiek, zati batean, HAPOn jasotzen ez diren Sasiola – Mutrikuko saihesbide berriaren mendekoak dira. Saturrarango hirigunearen dentsitate baxuko garapen txiki bat aurreikusten da lehendik dagoen bizitegi-eremuaren ondoan, hirigintza-plangintzan jasotzen ez dena. Plangintzak 470 etxebizitzako bizitegi-ahalmena mantentzen du, LPPk 8 urtera ezarritako minimoaren azpitik; baina udalerrira asko garatu da LPPren indarraldiko lehen 8 urteetan.

MENDARO – HAPO 2008

Mendaro udalerrirako, ospitalearen inguruko lurzoru-aurreikuspenak jasotzen dira, udal-plangintzan garatu direnak, baita beste erreserba bat ere Azpilgoeta eremuan, autobidearen ondoan, hori ere plangintzan jasota dagoena baina oraindik garatu ez dena. Hala ere, plangintzako gainerako bizitegi-ahalmena 186 etxebizitzakoa da.

ELGOIBAR – HAPO 2013

LPPk Elgoibar udalerrirako aurreikusten dituen erreserba garrantzitsuenak Urasandi esparruaren iparraldeko lurzoruak dira, hirigunearen iparraldean, 24,15 ha-koak, eta hirigunearen eta AP8 autobidearen hegoaldekoak; baita Mintxeta kirol-eremua ere, 43,30 ha guztira. Bi eremuak dentsitate

ertain-baxukoak dira. Eremu horiek ez daude jasota udal-plangintzan. Esan beharra dago, Urasandiren kasuan, oso eremu maldatsua dela, eta autobidearen hegoaldeko eremuan, plangintzak lurzoru urbanizagarri ez-sektorizatua jasotzen du, jarduera ekonomikoetarako kalifikatuta. Gainera, hegoaldeko eremu hori Balio Estrategiko Handiko eremu gisa dago kategorizatuta Nekazaritza eta Basogintzako LPSn. LPPk beste bizitegi-eremu bat mugatzen du Mintxeta ekialdean; hori ere ez dago HAPOn jasota. Udalerrriak 1.330 etxebizitzako bizitegi-ahalmena mantentzen du, LPPk 16 urtera definitzen duen tartearen barruan.

EIBAR – HAPO 2008

Eibarko udalerrian, LPPk aurreikusten dituen jarduketa garrantzitsuenak hauek dira: Txonta, Matsaria eta Asua Erreka jarduera ekonomikoetatik dentsitate altuko bizitegi-erabilera aldatzea, 600 eta 1.125 etxebizitza bitartean garatuz guztira; baita bizitegi-lurzoruak izatea ere Eibarko saihebidetaren inguruan, 465 etxebizitzarekin. HAPOk Txontaren birmoldaketa jasotzen du, baina ez Matsaria edo Asua Erreka eremuena, ez eta saihebidetaren inguruko bizitegi-lurzoruena ere. Nabarmenezkoa da lurzoru horiek malda handiak eta baldintzatzaileak dituztela, hala nola errepidea eta trenbidea. Gainera, hirigunearen erdigunean dauden Alfa enpresaren instalazioak bizitegitara birmoldatzea jasotzen da, 64 eta 136 etxebizitza arteko aurreikuspenarekin; jarduketa hori jada finkatuta dago. HAPOren ahalmena 1.376 etxebizitzakoa da, LPPk 8 urtera definitzen duen tartearen barruan.

ERMUA – HAPO 2015

Ermua udalerrirako, LPPk zenbait jarduketa jasotzen ditu San Lorentzon – Engranajes Ureta eta autopistaren lotunearen ondoko lurzoruak eraldatzea, gehienez ere 90 etxebizitzarekin –; Plan Orokorrak ere mugatzen ditu, 396 etxebizitzako jarduketa batekin, Abeletxen, eta jada finkatutako zuzkidura-bizitokiekin. Dentsitate ertaineko etxebizitza-jarduketa bat ere izango da Betiondon, jada zati batean eginda dagoena. Bizitegi-ahalmena 823 etxebizitzakoa da, LPPk 8 urtera definitzen duen tartearen barruan.

MALLABIA – HAPO 2016

LPPk bi jarduketa jasotzen ditu udalerririk horretarako, hirigunearen ekialdean eta mendebaldean, dentsitate baxuarekin eta 260 etxebizitzakoa gehienez ere; horietatik, HAPOk hirigunearen mendebaldeko erreserba bakarrik jasotzen du. HAPOk 114 etxebizitza aurreikusten ditu guztira, LPPren 8 urterako aurreikuspenaren barruan.

SORALUZE – HAPO 2017

LPPk lurzoru-erreserbak ezartzen ditu Soraluze hirigunearen bi muturretan, Deba ibaiaren eskuineko ertzean. Udal-plangintzak bizitegi-garapenak jasotzen ditu bi eremuetan, baita industria-eremu bat birmoldatzea ere ibilguan beheerako ezkerreko ertzean, SAPA kanoi-fabrika zaharra zegoen tokian. Plangintzaren bizitegi-ahalmena 237 etxebizitzakoa da, LPPk 8 urtera definitzen duen tartearen barruan.

3.3.2. LAG, bizitegi-kuantifikazioa: LPPko eta LAGetako aurreikuspenen kontrastea

Bizitegi Kuantifikazioaren arloan, LAGen 13. artikulua honako hau adierazten du:

13.2. art. Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako gidalerroak:

- f) Bizitegi-kuantifikazioa Lurralde Plan Partzialetan
 - 1) Lurralde Plan Partzialetan Eremu Funtzionaleko esparruaren barruko udalerririk bakoitzari dagokion bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatu beharko da, eta, zehatzago, lurralde-ereduaren osagaia.
 - 2) Lurralde Plan Partzialen kasuan, erabilitako koefizienteak Eremu Funtzionalaren ezaugarri espezifikoetara egokitu ahalko dira. Halaber, Eusko Jaurlaritzak erabilitako koefizienteak egokitu ahalko ditu arauz, Autonomia Erkidegoaren esparru orokorraren arabera.

Debabarreneko LPPren indarraldiko bizitegi-kuantifikazioko aurreikuspenak ondorengo taulan jasotzen dira:

UDALERRIA	8 urte		16 urte	
	KOPURU MINIMOA	KOPURU MAXIMOA	KOPURU MINIMOA	KOPURU MAXIMOA
DEBA	755	1.004	1.004	1.336
MUTRIKU	667	878	887	1.167
Itsasertzeko esparrua	1.423	1.882	1.892	2.503
ELGOIBAR	799	1.287	1.063	1.712
MENDARO	217	323	288	430
Tarteko esparrua	1.016	1.610	1.351	2.141
EIBAR	705	1.488	938	1.979
ERMUA	524	948	697	1.261
MALLABIA	104	162	138	215
SORALUZE	132	315	175	419
Barnealdeko esparrua	1.465	2.913	1.948	3.874
EREMU FUNTZIONALA, GUZTIRA	3.903	6.405	5.190	8.519

2019ko Udalplanaren arabera, 34.992 etxebizitza daude, lurzoru urbanizaezinetan dauden 1.408 etxebizitza barne hartuta, eta 5.314 etxebizitza aurreikusten dira. 2006ko Udalplanaren arabera, lehendik 31.703 etxebizitza zeuden, eta 2.835 etxebizitza zeuden aurreikusita. LPPren indarraldian 3.033 etxebizitza eraikitzeke lizentziak eman dira, Udalplaneko datuen arabera.

UDALERRIA	Lehendik dauden etxebizitzak UDALPLAN, 2019	Gauzatzeko geratzen diren etxebizitzak, UDALPLAN 2019	LIZENTZIAK 2005-2012	LIZENTZIAK 2005-2019
DEBA	3.060	794	149	336
MUTRIKU	2.685	472	330	358
Itsasertzeko esparrua	5.745	1.266	479	694
ELGOIBAR	5.449	1.331	374	429
MENDARO	928	186	163	164
Tarteko esparrua	6.377	1.527	537	593
EIBAR	13.192	1.376	1.183	1.311
ERMUA	7.188	823	268	348
MALLABIA	510	114	2	2
SORALUZE	1.980	237	87	87
Barnealdeko esparrua	22.870	2.268	1.540	1.748
GUZTIRA	34.992	5.343	2.556	3.035

2005ean LPP behin betiko onetsi zenetik eraiki diren etxebizitzaren kopurua (3.035 lizentzia eman dira) LPPren 8 urterako gehieneko bizitegi-ahalmenaren azpitik geratzen da. Udalerrri guztiek dute bizitegi-ahalmena, eta LPPk 16 urterako ezarritako tartearen barruan daude. Mallabiaren eta Mutrikuren kasuan, haien kuantifikazioa LPPk ezarritako minimoaren azpitik dago. Eibar da 15 urte hauetan etxebizitza gehien eraiki dituen udalerrria, LPPn aurreikusitako gutxieneko etxebizitza kopuruaren gainetik. Oraindik 1.376 etxebizitzarako bizitegi-ahalmena du, eta bertan jada zuzendu dira Txontako esparrurako aurreikuspenak. Beste muturrean Mallabia dago. Han 2 lizentzia bakarrik eman dira, Udalplaneko datuen arabera.

Planaren indarraldiko lehen zortzi urteetan gertatu da bizitegi-garapenik handiena; guztira, 2.556 etxebizitza egin dira (etxebizitza guztien % 84); 2013az geroztik, beste 479 etxebizitza eraiki dira. Egoera hori homogeneoa da udalerrri guztietan. Hain zuzen ere, Mallabian eta Soraluze ez da baimenik eman 2013az geroztik, eta, Mendaron, bakarra baino ez.

3.3.3. LAGetako bizitegi-kuantifikazioa

LAGetako Bizitegi Kuantifikazioaren arloko Gidalerroak 13. artikuluan arautzen dira, eta horretan honako hau zehazten da Lurralde Plan Partzialetarako:

13.2.f) artikulua.- *Bizitegi-kuantifikazioa Lurralde Plan Partzialetan.*

1. *Lurralde Plan Partzialetan Eremu Funtzionaleko esparruaren barruko udalerrri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatu beharko da, eta, zehatzago, lurralde-ereduaren osagaia.*
2. *Lurralde Plan Partzialen kasuan, erabilitako koefizienteak Eremu Funtzionalaren ezaugarri espezifikoetara egokitu ahalko dira. Halaber, Eusko Jaurlaritzak erabilitako koefizienteak egokitu ahalko ditu arauz, Autonomia Erkidegoaren esparru orokorraren arabera.*

LAGek udalerrri bakoitzerako ezarritako bizitegi-kuantifikazioa honako taula honetan jasotzen da, LPPko aurreikuspenekin eta 2019ko Udalplanaren arabera udal-plangintzako aurreikuspenekin alderatuta:

Udalerrria	LPPren kuantifikazioa 8 urtera	LPPren kuantifikazioa 16 urtera	2019ko LAGetako kuantifikazioa	2006ko Udalplanean aurreikusitako etxebizitzak	2019ko Udalplanean aurreikusitako etxebizitzak
Deba	1.004	1.336	637	350	775
Mutriku	878	1.167	706	165	472
Itsasertza, guztira	1.882	2.503	1.343	515	1.247
Elgoibar	1.287	1.712	827	875	1.331
Mendaro	323	430	476	165	186
Tarteko esparrua	1.610	2.142	1.303	1.040	1.517
Eibar	1.488	1.979	1.356	699	1.376
Ermua	948	1.261	717	375	823
Mallabia	162	215	115	133	114
Soraluze	315	419	205	73	237
Barnealdeko esparrua	2.913	3.874	2.393	1.280	2.550
GUZTIRA	6.405	8.519	5.039	2.835	5.314

LAGek etxebizitza berrien aurreikuspenak beheratu dituzte eremu funtzionaleko udalerrri guztietarako. Udalerrri guztietan oraindik ere bizitegi-ahalmena izanik, ikus daiteke Deba, Elgoibar, Eibar, Ermua eta Soraluzeren ahalmena LAGetan aurreikusitako kopurutik gora dagoela.

3.3.4. Bizitegi-kuantifikazioari buruzko ondorioak

1. LAGetako aurreikuspenek bizitegi-kuantifikazioaren zifrak beheratu egin dituzte LPPk ezarritako tartearakiko. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzetarako buruzko datuek agerian uzten dute Eibarko aurreikuspenak LAGetako kuantifikazioaren antzekoak direla, Elgoibarkoak oso gainera daudela, eta Deba, Ermua eta Soraluzekoak ere gainera daudela. Gainerako udalerriei dagokienez, Mallabiak, Mendarok eta Mutriku ahalmen txikiagoa dute LAGetan ezarritako kuantifikazioa baino.
2. Garapen-erritmoa askoz biziagoa izan da LPPren indarraldiko lehen 8 urteetan (2005-2012), guztira 2.556 lizentzia eman baitziren, 2013az geroztik eman diren 479 lizentziak alderatuta. Azken urteetako garapena ikusita, uste da udalerrri guztiek bizitegi-ahalmen nahikoa dutela.
3. Datu horiekin ondorioztatu daiteke LPPren etorkizuneko berrikuspen batean proposatutako bizitegi-kuantifikazioa berraztertu egin beharko dela.

3.4. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruak

3.4.1. Lurralde-eredua eta Kuantifikazioa

Esparru kongestionatuetako dentsitatea murrizteko eta lurzoruak berritzea edo birmoldatzea errazteko helburu orokorraren ildoan, LPPk honako helburu hauek ezartzen ditu jarduera ekonomikoen arloan:

- Behar adina lurzoru eskaintzea ekimenak hartzeko, eta behar adina lurzoru eskaintzea enpresak lekualdatzeko, hiriguneak arintze aldera.
- Lehendik dauden industrialde zaharkituak birmoldatzea, eta haien ordeztu ekipamenduetarako edo hirugarren sektoreko eremuak ezartzea.
- Jarduerarik gabeko lekuetan garbitze-lanak egitea.
- Paisaia industrial hobetzea; aurriak identifikatzea, egitura eta ikusizko osagaiak aztertzea.
- Industriadako eta zerbitzuetarako lurzoruak hartzeko gai diren lurzoruak izatea.
- Hiriguneak hirugarren sektorerako erabiltzearen alde egitea, merkataritza- eta zerbitzugarapenak bultzatuz.
- Industrialde bat jartzea esparru homogeneo bakoitzeko, jarduera ezartzea errazteko.
- Lehendik dauden eta harrobiak eraikitzeke erabil daitezkeen eremuak arrazionalizatzea.
- Industria Paisaiako Multzoen esparruak definitzea.

Eremu funtzionala osatzen duten 8 udalerriak, Jarduera Ekonomikoen LPSren arabera, jasaten duten industria-garapenaren intentsitatearen arabera kategorizatzen dira, baita lehentasunezko intereseko udalerrietan edo hazkunde ertaineko udalerrietan aurreikusitako ereduak eskaintzen dituen aukeren arabera ere:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak; komunikazio-korridore nagusietan kokatuta daudenak dira, eta industria gehien dutenak. Horietan honako hauek garatuko dira:
 - o Lurzoru finkatuak hobetzeko politika.
 - o Industria-eremu zaharkituak birmoldatu eta eraldatzea.
 - o Lurzoru desokupatuak garatzea.
 - o Lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzea interes estrategikoko puntuetan.
 Kategoria horretan daude Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia eta Mendaro udalerriak.
- Hazkunde ertaineko udalerriak; garapen-aukera argirik ez duten hiri-eremuak dituzten edo landa-esparruetan dauden tamaina ertaineko udalerriak.
 - o Lehendik dauden eremu eta ezarpenak finkatzea.
 - o Hazkundera lurzoru kalifikatuetara mugatzea.
 Kategoria horretan sartzen dira Mutriku eta Soraluez udalerriak.

Jarraibide horien arabera, LPPk jarduera ekonomikoen arloan jarduketa-esparru espezifikokoak zehazten ditu, eta lurzoru erreserbatzeko, eraikitzeke eta hiri berritzeko lehentasunezko jarduketak bereizten ditu. Horrela, 10/15 ha antolatzen dira Goitondo-Mallabia eskualde-industrialderako, eta 10 ha Albitxuri-Elgoibar industrialderako.

Eraikuntza-jarduketa gisa, 10.000 m²c aurreikusten dira Goitondo-Mallabia industrialderako; 10.000 m²c Albitxuri-Elgoibarrerako, 3.000 m²c Itziar-Debarako eta 3.000 m² Mutrikuko Mijoa industrialderako.

Gainera, hiri-berrikuntzako eragiketak aurreikusten dira, prestakuntza-zentroekin osatuta Elgoibarko Olosope esparruan eta Eibarko Matsaria esparruan. LPPk udalerriei honako eremu hauen birmoldaketa eta berrurbanizatzea abian jartzeko gomendatzen die:

EIBAR: Asua Erreka, Txonta, Arane, Matsaria eta Ibagain Barrenengua

ERMUA: Engranajes Ureta, Iru e Idesa, Fundiciones Gorospe, Troquemetal, Arin eta Ardatz.
 ELGOIBAR: Olasope eta Olasoate eta Urasandi
 ZALIBAR-EIBAR: Ibur Erreka

Eibarko Asua Erreka, Txonta, Arane, Matsarie eta Iburgain esparruetarako, Ermuko Engranajes Ureta esparrurako eta Elgoibarko Urasandi esparrurako, bizitegi-lurzorura birmoldatzea aurreikusten da. Esparru zaharkituak dira eta, horietan, jarduera ekonomikoaren zati bat eten da jada edo lekualdatu egin da, eta bizitegitarako hiri-bilbean txertatuta daude, hiri-bilbean distortsioak eraginez.

Merkataritza Ekipamendu Handien kasuan, LPPk Jarduera Ekonomikoen eta Merkataritza Ekipamenduen LPSn ezarritakoa ere bere gain hartzen du. Merkataritza-ekipamenduak sortzeko, hirigune historikoak eta erdiguneak berroneratzea lehenesten da, eta Eibarko hirigunea lehentasunezko kokaleku estrategikotzat aipatzen da, eta Elgoibar eta Debako hiriguneak, berriz, tarteko eta itsasertzeko lurralde-esparruetarako azpizentrotzat.

3.4.2. Jarduera Ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza kuantifikatzea. LPPko zehaztapenen gauzatze-maila eta Udalplanarekin alderatzea.

LPP onetsi zen unean, eremu funtzionalean lurzoru kalifikatuen 389,49 ha zeuden guztira; horietatik, 287,89 ha okupatuta zeuden eta 101,59 ha, berriz, hutsik, 2006ko Udalplanaren arabera. LPPk lurzoru berrien 202,45 ha antolatzen ditu guztira eremu funtzional osorako, eta 484,17 ha dira guztira. 2019ko Udalplanaren arabera, jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruen guztizko azalera 405,21 ha dira; hala, lurzoru kalifikatuek 15,72 ha-tan egin dute gora LPP behin betiko onetsi zenetik.

Udalerrria	LPP			Udalplan, 2019		
	Kalifikatua, guztira	Azalera hutsa, ha	Azalera okupatua, ha	Kalifikatua, guztira	Azalera hutsa	Azalera okupatua
Deba	71,56	29,30	42,26	78,97	16,79	62,18
Mutriku	15,30	1,20	9,00	16,31	3,63	12,68
Itsasertza, guztira	86,86	30,50	51,26	95,28	20,42	74,86
Elgoibar	119,09	40,18	69,71	106,86	39,76	67,10
Mendaro	30,74	3,90	13,34	13,40	0,42	12,98
Tarteko esparrua	149,83	44,08	83,05	120,26	40,18	80,08
Eibar	76,93	7,82	54,36	65,17	9,82	55,35
Ermua	43,48	0,00	39,28	47,96	16,57	31,39
Mallabia	108,00	19,76	37,50	63,02	15,64	47,38
Soraluze	19,57	0,00	16,27	13,52	0,00	13,52
Barnealdeko esparrua	245,98	27,08	147,41	189,67	42,03	147,64
GUZTIRA	484,17	102,16	281,72	405,21	102,63	302,60

3.4.3. Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura moldatzea.

LPPk bizitegi-kokalekuetarako egiten duen proposamenak udal-plangintzetan ezarritakoarekin alderatuta aztertu diren moduan, jarduera ekonomikoari buruzko proposamenak 2019ko Udalplanarekin alderatu dira.

DEBA – a) 2007 motako arau subsidiarioak

Deba udalerrirako, LPPk Itziariko industrialdean jarduera ekonomikoak birmoldatzeko eremuak adierazten ditu. Mugatutako eremuak, funtsean, bat datoz industrialdean hutsik dauden eremuekin, iparralderago dagoen eremua izan ezik, hori okupatuta baitago. LPPk 29,30 ha-ko azalera mugatzen du. LPPk adierazitako lurzoruetako batzuk garatu dira dagoeneko, eta 2019ko Udalplanaren arabera, industrialdearen azalera hutsa 14,34 ha da.

MUTRIKU – b) 2007 motako arau subsidiarioak

Mutriku udalerrirako, LPPk 6,30 ha-ko eremu berri bat mugatzen du Galdonan lehendik dagoen lurzoruaren inguruan, Ondarroatik gertu. Mutrikuko Plan Orokorrak lurzoru urbanizagarrien sektore bat mugatzen du eremu horretan, lehendik dagoen Mijoa industrialdea hedatzeko. Eremu horretan udal-plangintzak kalifikatutako lurzoruak 8 ha-ko guztizko azalera du eta hori bat dator LPPk mugatutakoarekin.

MENDARO – HAPO 2008

Udalerrri horretarako, LPPk jarduera ekonomikoak birmoldatzeko eremu bat adierazten du, 10 ha-koa, Deba ibaiko meandroetan, hirigunetik abiatu eta ibaian gora, ezkerreko ertzean. Eremu hori bat dator plangintzak mugatzen dituen jarduera ekonomikoetarako eremuekin, nahiz eta Plan Orokorrak ez duen jasotzen lurzoru urbanizaezin gisa geratzen den Aizkoltxoko muino txikia. Udal-plangintzak 5,4 ha inguruko azalarekin mugatzen dituen esparruak finkatuta daude gaur egun.

ELGOIBAR – HAPO 2013

LPPk Elgoibarko udalerrirako aurreikusten dituen erreserbak hauek dira: Albitxuriko industrialdea (14,50 ha) eta Lerun eta Karzizanoko lurzoruak, Olasoko industrialdearen birmoldaketaz gainera. Guztira 40,50 ha aurreikusten dira, birmoldaketa-eremuak barne. Plangintza orokorrak Albitxuriko erreserba jasotzen du – 18,50 ha-ko azalera du, guztira–, eta baita zati batean garatuta dauden Lerungo lurzoruak eta Karkizano ere; azken hori hutsik dago. Gainera, San Lorenzo erreka ondoan hutsik jarraitzen duten lurzoruak eta Arriaga eremuan etenda dauden bi lurzoru-poltsa gehitzen ditu. Albitxuri industrialdea, LPPko erreserba estrategikoetako bat, % 80an dago beteta, gutxi gorabehera. Olasoko industrialdearen birmoldaketa oraindik ez da gertatu, baina N-634 errepidetik sarbideak hobetzeko jarduketak garatu dira.

EIBAR – HAPO 2008

Eibarren kasuan, LPPren aurreikuspena lehendik dauden industria-eremuak birmoldatzea da, bizitegi-erabilerak har ditzaten; esanguratsuenak Matsaria eta Txonta dira. Halaber, Azitain industrialdea 3,25 ha hedatzea aurreikusten da. Udal-plangintzan Txonta birmoldatzea aurreikusten da, baina ez Matsaria, eta gaur egun bi eremuak birmoldatzeke daude. Azitaingo industrialdearen hedapena, gainera, Erisono industrialdearekin osatzen da, 12 ha-ko guztizko azalarekin, zeinetatik 3 okupatuta baitaude. Ibur Erreka industrialdearen zati bat Zaldibar udalerrian dago, eta lehendik ere bazeuden enpresak industrialde horretan; bada, horri dagokionez, urbanizazioaren zati bat garatu da, baina ez da beste jarduketarik egin.

ERMUA – HAPO 2015

Ermuko udalerrirako, LPPk adierazten du jarduera ekonomikoetarako eremu batzuk bizitegi-erabilerara birmoldatu direla eta Urtia industrialdea 4,20 ha-tan hedatu dela. Plan Orokorrak proposamenak jasotzen ditu, eta Urtiako industrialdea ia guztiz dago beteta. Baina San Lorenzo auzoko jarduera ekonomikoen eremuak birmoldatzeko proposamenak ez dira garatu.

MALLABIA – HAPO 2016

Mallabia LPPko apustu handienetako bat da, jarduera ekonomikoen garapenari dagokionez. Goitondon dagoen industrialdea iparralderantz 16,50 ha hedatzea aurreikusten da; hedapen hori plangintzan jasota dago eta jada gauzatu da. Horrez gain, hegoalderantz 38 ha hedatzea aurreikusten da, nahiz eta hori ez den Plan Orokorrean jasotzen. Era berean, Areitioko gainean 7 ha-ko azalera duten lurzoruak ere aipatzen dira, Plan Orokorrean jaso zirenak baina bertan behera geratu zirenak onespren partzialaren aginduan.

SORALUZE – HAPO 2017

Soraluzerako, SAPA kanoi-fabrika zaharra eta Ugarroa esparrua birmoldatzea aurreikusten da, hirigunetik abiatu eta ibaian behera. Plan Orokorrean, SAPA esparrua bizitegi-lurzoru gisa birmoldatzea jasotzen da, baina oraindik ez da garatu.

Beraz, udal-plangintzek Albitxuriko garapen nagusiak aurreikusten dituzte Elgoibarren, baita Goitondoko hedapenaren zati bat ere, Mallabian; horiek ia finkatuta daude. Ez da aurreikusten Goitondoko industrialdea hegoalderantz hedatzea, eta oraindik ez dira aztertu Eibar, Ermua eta Elgoibarko hiri-bilbean dauden industria-lurzoru zaharkituen birmoldaketa edo eraldaketak.

3.4.4. LAGetako Industria Kuantifikazioa

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen arloko Gidalerroak LAGen aplikazio-arauen 12. artikuluan garatzen dira. Honako hau adierazten du Lurralde Plan Partzialetarako:

12.6. artikulua Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-pakete handien dimentsionamenduaren azken erantzuleak izango dira Lurralde Plan Partzialak.

LPPren helburua eskualdean jarduera ekonomikoak garatzeko behar adina lurzoru eskaintzea eta industria-eremu zaharkituak birmoldatzea da; horretarako, lehentasunezko jarduketak-eremuak ezartzen ditu. LPP behin betiko onetsi zenetik, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren azalera 15 ha handitu da eta okupazioa 14,70 ha handitu da. Eremu funtzional osoan, lurzoru hutsen 102 ha daude oraindik, udal-plangintzan kalifikatuta, eta oraindik ez dira kalifikatu LPPn aurreikusitako lurzoru guztiak, hau da, lurzoruen beste 85 ha. Lurzoru hutsak Deba, Elgoibar, Eibar, Ermua eta Mallabia artean banatuta geratzen dira. Baina, Elgoibarren, lurzoru hutsen 11 ha-k plangintza etenda dute.

LPPk proposatzen dituen lurzoru-erreserba garrantzitsuenak (Albitxuri Elgoibarren eta Goitondo Mallabian) hein batean garatu dira. Albitxurin oraindik 4 ha huts geratzen dira eta Goitondon ez da kalifikatu lehendik dagoen industrialdearen hegoaldeko hedapena. LPPk Areition proposatutako lurzoruak HAPON jasota daude, baina Plan Orokorra behin betiko onetsi zuen Foru Aginduak eten egin ditu. Eibarren Erisonoko industrialdea garatu da, Azitaingo industrialdearen hedapen gisa, eta hori ez zegoen LPPn jasota. Itziarko industrialdean, hutsik dauden lursail batzuk okupatu egin dira, nahiz eta oraindik ere 14 ha inguruko ahalmena duen.

Eibarren, Txonta, Matsaria eta Asua Errekarako aurreikusitako hiri-berrikuntzako jarduketak ez dira gauzatu, ziurrenik, berrezarpenak kudeatzea zaila izateagatik eta krisi ekonomikoarengatik. Gainera, Matsaria eta Asua Errekaren kasuan, HAPOk ez du aurreikusten bizitegi-lurzorutzat birkalifikatzea.

Lehentasunezko interesekotzat jotzen diren udalerriek, Mendarok izan ezik, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-ahalmen jakin bat dute oraindik, udal-plangintzak jada kalifikatutako lurzoruetan, aintzat hartuta LPPn aurreikusitako lurzoru guztiak ez direla garatu. Baina, era berean, kontuan hartu behar da Mallabian eta Elgoibarren kalifikatutako lurzoruen zati bat etenda dagoela eta horrek haien ahalmena 10,93 ha-tan murriztu duela Elgoibarren eta 5,61 ha-tan, Mallabian; horrela, eremu funtzional osoan, lurzoru hutsen 86,09 ha geratzen dira guztira.

3.4.5. Jarduera ekonomikoei buruzko ondorioak

1. LPPk bi lurzoru-erreserba handi aurreikusten ditu Albitxurin (Elgoibar) eta Goitondon (Mallabia), udal-plangintzan kalifikatuta daudenak eta proportzio handi batean finkatuta daudenak. Eibarren, LPPn jasota ez dagoen lurzoru-poltsa handi bat kalifikatu da Erisonon, Azitaingo industrialdearen hedapen gisa, eta Matsaria eta Asua Errekako industria-lurzoruak bizitegi-erabilerarako birmoldatzeko eremuak HAPON jarduera ekonomikoetarako lurzoru gisa mantentzen dira.
2. LPPn jarduera ekonomikoetarako aurreikusitako lurzoruen 484 ha-tik, plan orokorrek 405 ha kalifikatu dituzte, eta, horietatik, 100 ha inguruk hutsik jarraitzen dute. Hortaz, LPPk jarduera ekonomikoetarako lurzoru-ahalmena mantentzen du.
3. LPPn egiten diren eta hirigintza-plangintzetan jasota ez dauden lurzoru-erreserbetatik, 52 ha Mallabian daude, Goitondon (38,6), Urtian (6,30) eta Areition (7,10) banatuta. Azken kasu horretan, plangintza etenda dago. Beste kasu batzuetan, hala nola Elgoibarko Lerun Txiki

edo Mendaroko Aizkoltxo eremuetan, udal-plangintzak LPPn erreserbatutako lurzorua baino lurzoru gutxiago kalifikatu du. LPPk Eibar, Zaldibar eta Elgeta artean dagoen Ibur Erreka industrialdeko erreserba ere badu, 9,60 ha eta orografia konplexu eta kudeaketa zaila dituena.

3.5. Hiri-berroneratzearen LAG

LAGen memoriako 6.2. apartatuak, hiri-berroneratzeari buruzkoak, honako hau adierazten du: «Hiri-berrikuntzako ekimenak proposatzeko garaian, lurraldea –orokorrean hartuta– berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukera emango duen estrategia bat pentsatu behar da, jadanik hirigintzak okupatuta dauzkan espazioetan erabilera berriak garatu ahal izateko eta hazkunde-premiak betetzean hiri-bilbean txertatu gabeko lurzoru berriak okupatu behar izan gabe».

Bestalde, LAGen araudiak honako hau definitzen du Lurralde Plan Partzialetarako:

10. artikulua. Hiri-berroneratzearen arloko gidalerroak

1. *Lurralde Plan Partzialetan berroneratzeko espazioak zehaztuko dira erabat degradatu daitezkeen saihesteko, edo erabat edo zati batean beste erabilera baterako berreskuratzeko. Halaber, ondorio horietarako garatu beharreko programak eta horiek gauzatu ahal izateko babes-neurriak definitu behar dira. Edozein kasutan, Udalak izango dira, beren planen bidez, eremu horiek mugatuko dituztenak.*

Lehen esan den moduan, biztanleria-dentsitate handiko eremua da, ibar-hondoak bizitegitarako zein jarduera ekonomikoetarako eremu urbanizatuekin okupatuta dituena, eta hiri-bilbean integratutako industria-lurzoru zaharkituak dituena. Bizitegi-kokalekuetarako helburu orokorren artean, LPPk honako helburu hauek jasotzen ditu hiri-berroneratzearen harira:

- Bizitegi-kokalekuen dentsitatea murriztea.
- Hiriguneak arindu eta berroneratzea.
- Hirigune historikoen birgaitze integratua.

Nagusiki, Eibar, Ermua, Elgoibar eta Soraluez udalerrietan zentratutako jarduketak jasotzen dira. Industria-esparruak dentsitate ertaineko bizitegi-eremuekin ordezkatzeko aurreikusten da, birgaitze integratutako honako programa hauekin:

- Ermua: Autobideko ordainleku zaharraren eremua birmoldatzea San Lorenzon, eta baita Engranajes Ureta enpresako instalazioak ere.
- Eibar: Txonta, Matsaria, Asua Erreka eta Alfa industrialdeak birmoldatzea.
- Elgoibar: Urasandi esparrua berritzea, Deba ibaiaren ezkerreko ertzean.

Baina oraindik ez dira jorratu birmoldatzeko edo eraldatzeko jarduketa horiek; ziurrenik, kudeatzeko oso zailak direlako. Eibarko Txonta auzoaren kasuan, Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzatik esparrua berritzeko proiektu-pilotu bat garatzen ari da.

3.5.1. Hiri-berroneratzeari buruzko ondorioak

1. LPPren helburu nagusietako bat kongestionatutako eremuen hiri-berroneratzea da, eta, horretarako, Eibar (Txonta, Matsaria, Asua Erreka), Ermua (Engranajes Ureta) eta Elgoibar (Urasandi) hiri-bilbeetan integratutako industria-esparru zaharkituak birmoldatzea zehazten du.
2. Industria-esparruak birmoldatzeko jarduketetatik, lanak gauzatzen ari dira Eibarko Txonta esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratzeko Zuzendaritzaren laguntzarekin.

3. Etorkizunean LPP berrikustean, hausnarketa integrala egin beharko litzateke eremu degradatuei eta lehentasunezko esku-hartzea behar duten eremuei buruz.

3.6. Hiri Hazkundearen Perimetroa

Hiri-hazkundearen perimetroaren kontzeptua ezartzen da, hiri-hedapeneko prozesuetan arrazoizkoa izango den gehieneko muga fisiko bat ezartzeko, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasuneko irizpideen arabera, eta jada urbanizatutako eremuen birtrinkotzea eta berritzea lehenetsita. LAGetako 11.1. artikulua honako hau ezartzen du lurralde-plangintzarako:

- a) *Lurralde Plan Partzialetan hiri hazkundearen perimetro bat proposatzea, udal-plangintzek egokitu ahalko dutena eta udal-erri guztien bizitegitarako, jarduera ekonomikorako eta zuzkiduretarako eskariak kontuan hartuko dituen.*
- b) *Hiri hazkundearen perimetro bat proposatzea, indarreko Lurralde Plan Partzialetan zehazten diren Bizitegitarako edo Jarduera Ekonomikoetarako Garapen Berriko Lehentasunezko Eremuak egokituz.*
- c) *Hiri hazkundearen perimetroa proposatzea egungo hiri-orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta. Horren harira:*
 - 1) *Hiri hazkundearen perimetroa definitzeak ahalbidetuko du hiria lehendik dauden kokagune bakartuekin integratzea. Lehendik dauden edo aurreikusita dauden garraio kolektiboko sistemekin bat datozen hazkunde-prozesuak bideratzeko aukera ere emango du.*
 - 2) *Eraldaketa Ardatzetan barne hartzen diren udalerrietan, hiri hazkundearen perimetroaren mugapena aipaturiko ardatz horiek eratzera eta finkatzera bideratuko da, guneen arteko lurralde-hutsuneak babestuz eta zeharkako konexio ekologikoa indartuz.*
 - 3) *Hiri hazkundearen perimetroaren kanpoko hiri inguruko ingurunean, ez dago aurreikusita eremuaren hirigintza-okupazioa beharrezkoa denik LPPren iraupen-aldian. Lurzoru urbanizagarriko esparruak izanez gero, udal-plangintzaren berrikuspenean erabakiko da esparruari landa-kalifikazioa ematea edo bere adskripzioa atxikiko duela justifikatzea hirigintza-hedapeneko zona berriei dagokienez.*
- d) *Hiri hazkundearen perimetroan ezingo dira sartu Lurralde Antolamenduaren Gidalerro hauek Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera edo lurralde-planek edo indarreko legeriak xeda dezaketenaren arabera hirigintza-aldaketa debekatuta duten lursailak.*
- e) *Hiri hazkundearen perimetroa hiri-ehunaren inguruan ezartzea.*

LPPk, antolamendu-arauen 24. artikuluan, baldintza bereziak ezartzen ditu garapen berriak antolatzeko, berriaz zehaztutako esparruetatik kanpo eta, horren harira, honako hau adierazten da:

1. *Salbuespen erara, onartu ahal izango dira proposatutako garapen berriko esparruez kanpoko hirigintza-ezarpenak. Horretarako, udal-proposamenak jarduketa zehatz-mehatz justifikatuko du bere interes sozialean, LPPk diseinatutako lurralde-ereduarekin duen erlazioan eta ekar ditzakeen lurralde- eta ingurumen-inpaktuen analisi paralelo batean oinarrituta.*
2. *Aukera hori hirigintza-hazkundearen aurreikuspena mugatzen da. Hazkunde horiek aurretik existitzen diren guneetan oinarrituko dira eta zuzenean edo zeharka erlazionatuta egongo dira haiekin eta beharrezkoa izango da horien komenigarritasuna eta egokitasuna era egokian eta behar beste justifikatzea eta, beti, definitutako basogintza-eremuetan eta nekazaritza eta abeltzaintzako landazabalean.*
3. *Artikulu honen arabera HAPOk proposatzen dituen bizitegitarako lurzoruko berriek ez dute eragingo ezarritako bizitegi-kuantifikazioa handitzea, ezta proposatutako lurzoruko-ocupazioa handitzea ere.*
4. *Artikulu honen arabera HAPOk proposatzen duen ekonomia- eta merkataritza-jardueretarako lurzoruko berriak helburu bakar batekin mugatu ahal izango dira: hiri-*

berroneratzearen arloko eragiketa integralen esparruan sustatutako industria-ehun zaharkituak eta eskualde-mailako industrialdeak eraldatzeko esku-hartzeei ordezkoko beste erantzun batzuk emateko helburuarekin, batik bat, betiere, aurretik erabilera publikokotzat eta gizarte-interesekotzat deklaratu badira.

5. Puntu honen arabera HAPOk proposatzen duen ekipamendu- eta zerbitzu-jardueretarako lurzoru berriak helburu bakar batekin soilik mugatu ahal izango dira: kokalekuen beharrei erantzutea, horien jarduera edo ezaugarrien ondorioz, landaguneetan bakarrik kokatu daitezkeenean, betiere, aurretik erabilera publikokotzat eta gizarte-interesekotzat deklaratu badira.

LPPk ezarritako eremuez kanpoko garapenetarako ezartzen dituen mugak koherenteak dira LAGetako Hiri Hazkundearen Perimetroaren kontzeptuarekin.

3.6.1. Hiri Hazkundearen Perimetroari buruzko ondorioak

1. Eremu funtzionalaren orografia malkartsuak, batetik, hiri-orbana ez zabaltzea ahalbidetzen du. Bestetik, lurzoria ondasun urri gisa administratu behar da.
2. LPPk Mutriku eta Deba udalerrietan aurreikusitako erreserbak egungo bizitegi-azaleraren bikoitza baino gehiago dira eta ez datoz bat hiri-hazkundearen perimetroaren kontzeptuarekin.
3. LPPk lehendik dauden guneetan oinarritutako hazkundeak mugatzen ditu eta zenbait baldintzatzaile definitzen ditu; horietarako, plangintzak zonakatze desberdina ezar lezake, eta hazkunde berriak xedatu mugatutako orbanetatik kanpo; betiere, horrek ez badu eragiten bizitegi-kuantifikazioa handitzea. Horrela, hiri hazkundearen perimetroaren kontzeptuarekin bateragarriak diren mugak ezartzen ditu. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, hiri hazkundearen perimetroa berariaz mugatu beharko litzateke LAGetako zehaztapenen arabera.

4. PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

4.1. Paisaia

4.1.1. LPPk proposatutako eredia.

Paisaia-arloko LPPren helburu nagusiak landa-paisaiak babestea eta hiri-esparruen ingurumen-leheneratze eta -hobekuntza dira.

Landa-esparruetarako, helburua lehendik dauden landa-esparruak sustatzea da, ingurune fisikoa errespetatzen duten antolamenduekin. Esparruaren jarduera nekazaritza eta abeltzaintzari badagokio, ez da eraikin edo etxebizitza gehiago baimenduko; eta jarduera bizitegiei badagokie, hazkundera lurraldearen hartze-ahalmenaren arabera izango da.

Ingurune fisikoa antolatzeko gidalerro orokorrei buruzko LPPko 10. artikulua honako hau zehazten du paisaiaren arloan:

Art.10.5. Paisaia-multzoak babesteko, toki horiek identifikatu egin beharko dira eta horiek babestuko dituen erabilera- eta kudeaketa-araudia ezarri beharko da. Horretarako:

- a. *Estetika- eta paisaia-multzoak tipifikatuko dira, egungo garapen sozioekonomikoaren aurrean sentikorragoak diren alderdiak identifikatuz, baita babes berezia behar duten elementuak ere.*
- b. *Laguntzetarako aurrekontu-lerroak prestatu ahal izango dira, ordena horretan, ekimen pribatuen partaidetza-testuinguru batean.*

Ingurumena leheneratu eta hobetzea aurreikusten den hiri-esparruetarako, LPPk ingurumena eta paisaia hobetzeko esku-hartze estrategiko batzuk definitzen ditu 64. artikuluan. «Paisaia Multz Industrialak» mugatu dira Ereku Funtzionalako udalerrri guztietako industria-esparruetan, eta, era berean, hiriguneetan eta irudia hobetzeko ibaiertzetan jarduketak egitea aurreikusi da. Adierazitako zehaztapenak honako hauek dira:

64. art. Ingurumena leheneratzeko eta hobetzeko esparruak

1. *Ingurumena leheneratzeko eta hobetzeko esparruei dagokienez, esku-hartze estrategikotzat xedatzen dira eskualdearen irudia osatzen duten eraikin-multzoen, kanpoaldeko elementuen, elementu linealen edo mugarrien ingurumen-leheneratze eta -hobekuntzara bideratutako ekintzak. Honako hauek dira aipatu elementuak:*
 - a. *Industriako Paisaia Multzak: II. planoan zehazten direnak. Hiri-birmoldatzea. Industriako paisaia-multzoak.*
Industriako Paisaia Multz horiek garatzeko, aintzat hartu beharko dira ikus-, industria- edo eraikuntza-arloko batasun-irizpideak, eta plan berezien bidez proposatu beharko dira multzo osoaren ikus- eta paisaia-hobekuntzarako egokitzat jotzen diren jarduketak.
 - b. *Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar-Altzolako hiri-kanpoaldeak.*
 - c. *Soraluze, Elgoibar, Altzola, Mendaro eta Debako ibaiertzak.*
 - d. *Hiriko mugarrak eta irudiak balioztatzea:*
 - *Begiralekuak – galeriak Deba ibaiaren ertzean, Soraluzen eta Elgoibarren.*
 - *Ontzi-atrakalekuak, marearen arabera, Debako itsasadarraren bokalean.*
 - *Parkea, itsasertza eta pasealekua Deba ibaiaren bokalean (Deba eta Mutriku), bi aldeetan.*
 - *Ibaiertzeko pasealekuak Soraluzen, Elgoibarren, Mendaron, Eibarren, Ermuan eta Mallabian.*
 - *Altzola auzoa, pasealekua, hotel eta bizitegitarako eraikinak, zubiak, eta abar.*
 - *Natura- edo eraikin-paisaiaren aurka egiten duen tokiko edozein esparruren irudia hobetzeko balio duen jarduketa oro.*
2. *Esparru horietan, esku hartu beharko da, eraikuntzak edo, besterik gabe, estetika eguneratzeko, plan berezien edo lan-proiektuen bidez.*
3. *Deba ibaiaren ingurumen-hobekuntzako jarduketak garatzen dituzten dokumentuetan kontuan hartu behar dira Kostaldeko Legeak itsas-lehorreko jabari publikorako eta babes-zortasunaren araberrako eremuetarako ezartzen dituen mugak.*

Ildo horretan, Debabarreneko Garapenerako Debegesa Elkartek Deba eta Ego ibaiak leheneratu eta balioztatze proiektu bat garatu du. Proiektu horren jarduketan artean, udalerrietako ibai-aurrealdearen irudia hobetzea aipatzen da, eta hori bat dator 64.1.c artikuluko zehaztapenekin. Azken urteetan, birgaitze-jarduketak egin dira Deba ibaiertzeko aurrealdetan, Elgoibarren.

4.1.2. LAG eta LPP

LAGek zehazten dute paisaia erreferentzia izan behar duela lurraldearen antolamenduan, eta modu integralean hartu behar da kontuan, paisaia bikainak eta egunerokoak aintzat hartuz, hauskorrenak babesteko eta degradatuak lehengoratzeko neurrien bitartez.

Paisaiaren arloan, LAGen 21. artikulua honako hau adierazten du:

21.10. Lurralde Plan Partzialetan beren Ereku Funtzionalari eta eragin-eremuari dagozkien paisaia-zehaztapenak bildu beharko dira, paisaia kudeatu, babestu eta antolatzeko dagozkion tresnen (Paisaiaren katalogoak adibidez) ondorio direnak.

Ildo horretan, ez da Debabarreneko Ereku Funtzionalerako Paisaiaren Katalogorik garatu; hala ere, LPPk paisaia naturalak babesteko eta paisaia degradatuenak hobetzeko zehaztapenak ditu, ingurumena leheneratzeko eta hobetzeko esparru gisa.

4.2. Kultura-ondarea

4.2.1. LPPk proposatutako eredia.

LPPk, 65. artikuluan, hirigune historikoetarako eta ondare kulturalerako zehaztapenak ezartzen ditu.

1. *Administrazio eskudunek azterketak, planak edo proiektuak finantzatu ahalko dituzte, edo behar diren lanak egingo dituzte, hiri-egiturak, monumentuak, eraikinak eta hirigune historikoak eta eskualdeko ondare kultural eraiki eta arkeologikoa osatzen dituzten gainerako elementuak balioztatu, babestu, antolatu eta eguneratzeko, horien ondare historiko, artistiko edo kulturala desagertu ez dadin.*
2. *Lurraldean ezagutzen diren elementu kulturalak babes- eta kontserbazio-neurri egokien xede izango dira. Udal Plangintzari egokitu zaio bere katalogoetan integratu beharreko ondare eraikiaren elementuak zehaztea eta horien gaineko jarduketa-erregimeneko arauak zehaztea, arloko legeria sektoriala aplikatzeari eragin gabe.*
3. *Arau-babesik ez duten eta eraikin historikoak izateagatik, horien bereizgarriengatik eta bestelako arrazoi batzuegatik udal-katalogoan jasota dauden elementuetarako, Udal Plangintzak, gutxienez, VI. eranskinean ezarritako babes-erregimena jaso behar du.*
4. *Aipatu ondare kultural higiezina eremu funtzionalaren kudeaketan jasoko da, eta, horri esker, administrazio desberdinen arteko lankidetzaren bitartez, zaintza-lanei bide emango zaie eta baliabideak esleituko dira horiek mantendu edo zaharberritzeko, eta bisita publikoak antolatzeko.*
5. *Hirigune Historikoen babes, berrikuntza, leheneratze eta ondorengo mantentzeari dagokionez, honako hauek egin beharko dira:*
 - a. *Udalerrri bakoitzeko hirigune historikoak edo bertako biztanleentzat edo, hala badagokio, ondoko udalerrien alboan eraturako masa kritikoarentzat erakargarria den merkataritza-espazioak izendatzea.*
 - b. *Helburuak bateratzea hirigunearen balio historikoen eta egungo bizitegi-espazioarekin bat datozen bizi-kalitateko eta konforteko estandarrak lortzearen artean.*
 - c. *Lehentasunezko hirigune historikotzat hartzen dira Mutrikukoa, Debakoa, Elgoibarrekoa, Soraluzekoa eta Ermukoa.*

Hirigune historikoei dagokienez, etxebizitzaren arloko jarduketa-esparru espezifikoei buruzko 30.2. artikuluan honako babes- eta birgaitze-eragiketa hauek aurreikusten dira:

- Hirigune Historikoak: Ermua, Soraluze, Elgoibar, Deba eta Mutriku.
- Altzola eta Olasogain auzoak Elgoibarren
- Asilo-Atxuri-Zubia eremua Soraluzen.

4.2.2. LAG eta LPP.

LAGen memoriak adierazten duenez, kultura-ondarearen antolamenduak inplikaturako araudi sektorialen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatu behar du, ondare hori babesteko eta balioztatzeko premiei erantzunez, lurralde- eta hirigintza-eskala desberdinetara egokitutako ikuspegi integral bati jarraikiz.

22. artikulua honako hau adierazten du Lurralde Plan Partzialetarako:

22.1. art. Lurralde Plan Partzialetan euskal kultura-ondarea bere osotasunean biltzea jaso beharko litzateke, tipologia araberako egituratuta: kultura-ondare materiala (higiezina eta higigarria) eta kultura-ondare immateriala.

LPPk ondare materiala babesteari buruzko zehaztapenak jasotzen ditu eta udal-plangintza aipatzen du, katalogatutako elementuak zehazteko.

Nabarmenezkoa da LPPk ez dituela jasotzen Donejakue Bideari buruzko zehaztapenak (urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez Ondare Kultural Kalifikatu gisa sailkatua, Multzo Monumentalaren

kategoriarekin). Dekretu horrek Deba eta Mutrikutik, batez ere landa-eremuetatik, igarotzen den Kostaldeko Bidea aipatzen du eta mugari batzuk aipatzen ditu; besteak beste, elizak, baserriak eta Sasiolako ospitalea eta komentua.

4.3. Natura Ondarea

4.3.1. LPPk proposatutako eredia

Ingurune Fisikorako ezarritako helburuen artean Ondare Naturalarekin erlazionatutakoak daude:

- Baso natural autoktonoen azalerak mantendu, leheneratu eta handitzea.
- Basa-fauna eta -floraren espezieak kontserbatzea, baita horiek aurrera egiten duten habitatak ere.
- Uren kalitatea eta drainatze-sare naturalaren funtzionamendua hobetzea.
- Ondare naturalistiko, arkeologiko, historiko eta kulturekotasun katalogatutako elementuak babestu eta kontserbatzea.
- Ereku funtzionalean dauden interes bereziko naturaguneen babes eraginkorra bermatzea.

Ingurune fisikoaren antolamendurako gidalerro orokorren 10. artikulua honako hau zehazten du Natura Ondareari dagokionez:

1. Ekosistema bereziak (itsaslabarrak, Debako padura eta mendigune karstikoa) babesteko helburuarekin, honako hauek egin beharko dira:
 - a. Ikerketa-esparrua mugatzea eta jarduerak aztertzea, horiek ziklo naturalen eta basa-bizitzaren gainean dituzten efektuak aintzat hartuta.
 - b. Erabilera- eta kudeaketa-araudia prestatzea, horiek babesteko.
2. Aniztasun biologikoa, baliabide genetikoa eta ingurumen-erregulazioa mantentzeko, basa-bizitzaren eta espezie biologiko bereizgarrien komunitateak aztertu beharko dira. Horretarako, honako hauek egin beharko dira:
 - a. Babes-eremuak ezartzea, ekotonu nagusien laginak eta segida ekologikoaren etapa serialak barne hartuz.
 - b. Endemikoak, bereziak edo arraroak izateagatik katalogatuta dauden eta desagertzeko arriskuan dauden basa-espezieekin kudeaketa-planak eta etengabeko jarraipena egitea, aipatu espezieen habitatei eragin diezaieketen jardura eta jarduketak saihestuz.
3. Ziklo hidrogeologikoak leheneratzeko, lurzoruen degradazioa saihesteko eta natura-arriskuei aurrea hartzeko, lurraldea Arro edo Azpiarroen bidez kudeatuko da, eta lurzoru-erabilaren gidalerroak horien ezaugarri geomorfologiko eta hidrologikoen arabera zehaztuko dira. Horretarako, honako hau zehazten da:
 - a. Jarduketa sektorialen programetan aintzat hartuko dira drainatzearen antolaketa, higadura-arriskuen aurreikuspena eta akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna.
 - b. Ingurumena leheneratzeko programek higadura-arriskua duten eremuak leheneratzea eta akuiferoak birkargatzea izango dute ardatz.

Ildo horretan, LPPk ingurune fisikoaren babes-kategorietan sartzen ditu deklaraturako kontserbazio-eremu bereziak eta natura-esparru babestuak, hala nola Zumaia eta Deba bitarteko edo Mutriku-Saturrarango itsaslabarrak, eta baita natura-interesa duten beste kokaleku batzuk, hiri inguruko parkeak, interes geologikoa duten esparruak, eta abar.

4.4. Baliabide Turistikoak

4.4.1. LPPk proposatutako eredia

1. Zenbait esku-hartze estrategiko proposatzen dira ekipamendu turistikoari dagokienez.
 - a. Saturrarango Hondartzaren antolamendua Mutrikuko Udalak sustatutako Saturrarango Plan Bereziaren zehaztapenen arabera garatuko da.

- b. Mutrikuko portua arrantza- eta aisia-erabilera mistora egokitzeko lanak egingo dira, 42. artikuluan ezartzen den moduan
- c. Lehentasunezko baliabide turistikotzat zehazten dira:
 - Mutriku, Deba, Elgoibar, Soraluze eta Ermuko hiriguneak
 - Ondasun babestuen Inbentarioaren III. eranskinean ageri diren monumentuak, eraikinak, eta abar.
- d. Administrazio jarduleak behar dituen laguntzak gaitu ahal izango dira, lehendik dauden baliabideak erabiltzeko behar diren plan, proiektu eta lanak ezartzeko.
- e. Bi parke tematiko egingo dira:
 - Uraren zikloari eta sistema karstikoari buruzko parke tematikoa, Izarraizko karstaren unitate hidrogeologikoaren ondoko esparruan, Mutrikun.
 - Desagertzeak dauden etxeko animalia-arrazei eta bertako nekazaritza-barietateei buruzko parke tematikoa Lastur landagunetik hurbil, Deban.
2. Kanpinen jarduera-esparruek, araudi espezifikoa betetzeaz gainera, lurraldera sartzeko esparruen mugaketari lotuta egon beharko dute, eta ezin izango da LPP honek definitutako gunek bakoitzeko bat baino gehiago egon haren mende.
3. LPP honen garapenean sakonduko da, azterketa, plan edo programa integratuen bidez, honako hauei dagokienez:
 - Bizikleta, arma, damaskinatugintza, nekazaritza eta abeltzaintzako elementuei eta abarri buruzko museoak sortzea.
 - Irisgarritasuna eta aparkamendu kontrolatua hobetzea hondartza bakanduetara heltzeko (zazpi hondartzak, Sakoneta, Ixtaspe eta abar)
 - Eskualdearen irudi korporatiboa diseinatzea, baita natura-baliabide, pista, auzo, elementu, eraikin eta eskualdearen irudia osatzen duten gainerako elementuen seinaleztapenarena ere.

Proposatutako jardueretatik, Mutrikuko portua egokitu da eta hondartza hobetu da. Halaber, Eibarko Armagintzaren Museoa garatu da, baina ez da parke tematikorik edo aurreikusitako beste museorik egin. Nabarmentzekoa da lau kanpin daudela Mutriku udalerrian, eta beste bat, Deban.

4.4.2. LPP eta LAG

LAGen 24. artikulua honako hau ezartzen du Baliabide Turistikoaren arloan:

24.3. artikulua. Lurralde plangintza partzialari dagokionez:

- a) *Lurralde-plangintza partzialaren Lurralde Ereduan, Eremu Funtzional bakoitzean dauden baliabide turistikoaren antolamendua integratzea.*
- b) *Lurralde Plan Partzialetatik Baliabide Turistikoaren LPSn bildutako aurreikuspenak ongi txertatzeko lana koordinatzea, baliabide naturalen eta ingurumenaren babesarekin eta antolamenduari eta lurraldearen erabilera iraunkorrarekin bateragarri direla bermatzeko moduan.*

LPPk zenbait zehaztapen jasotzen ditu eskualdean dauden baliabide turistikoetarako, eta zenbait natura- eta ondare-elementu adierazten ditu. Gainera, bigarren bizitegiak aipatzen dira, bizitegi-kokalekuen atalean jorrotzen direnak. Ildo horretan, LPPn jasotako zehaztapenak bat datoz LAGekin.

4.5. Ondorioak

1. LPPk paisaia aktibo garrantzitsutzat hartzen du, lurralde osoari aberastasuna eta erakargarritasuna ematen dion aldetik, eta, alde horretatik, landa-paisaia babesteko zehaztapenak jasotzen ditu, kokaleku berrietarako ingurune fisikoak eta kokalekuak errespetatzeko irizpideak ezarriz.
2. Era berean, hiri-paisaiaren ingurumena eta kalitatea hobetzeko zehaztapenak jasotzen ditu, eta, horretarako, «Paisaia Maltzoak» mugatzen ditu, eraikuntza-maltzoak, hiri-

inguruak, ibaien ertzak eta puntu bereziak, hala nola begiratokiak edo ontzi-atrakalekuak, leheneratzeko eta ingurumena hobetzeko.

3. Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ildoan, Debarreneko Paisaiaren Katalogoa idatzi beharko litzateke, eremu funtzionaleko paisaia modu integralean aztertu, eta paisaia-unitateak, zehaztapenak eta Paisaia Interes Berezikoko Eremuak zehaztuz.
4. Kultura-ondareari dagokionez, hirigune historikoetarako jarduketak jasotzen ditu eta Birgaitze Integratuko Eremuetan jarduteko beharra ezartzen du; horrez gain, babestu beharreko elementuen katalogoa jasotzen du. LPPren etorkizuneko berrikuspena Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea egokitu beharko da.
5. Natura-ondareari, interes natural eta geologikoko elementuei eta esparru babestuei dagokionez, ingurune fisikoan babestu beharreko eremuen kategorian sartzen dira.
6. Baliabide turistikoari dagokionez, Mutrikuko portuari eta Eibarko Armagintza Museoari buruzko proposamenak garatu dira. Ez dira egin parke tematikoak eta aurreikusitako beste museoak, eta proposamen horien bideragarritasuna aztertu beharko litzateke. Kanpin-eskaintza Mutriku eta Deba artean dauden bost kanpinetara mugatu beharko litzateke.

5. BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA

5.1. Ura

5.1.1. LPPk proposatutako eredia.

LPPk uraren arloan definitzen dituen helburuak honako hauek dira:

- Ibilguen babesari eta uholdeei dagokionez: udalerrietan izan ohi diren aldian behingo uholdeak saihestea.
- Ur-hornikuntzari dagokionez: egungo eta aurreikusitako aprobetxamenduetako drainatze-eremuak babestea; eta hornikuntza-sarearen hobekuntza orokorra.
- Saneamenduari dagokionez: eskualdeko arazketa- eta saneamendu-sistema nabarmen hobetzea.

Deba arroko ibilgu guztiak Lurrazaleko Uren Babes Eremuen kategorian jasotzen dira eta lehentasunez jotzen dira Ego ibaiaren eta Eibarko gainerako ubideen hobekuntza hidraulikoko jarduketak; horren araudian EAeko Ibaiertz eta Errekaertzen Antolamenduko LPS aipatzen da.

5.1.2. Uholde-arriskuaren kudeaketa

Eskualdeko ia udalerrri guztiek uholde-arrisku larriak dituzte. Helburua aldian behingo uholdeak saihestea da, ibai eta ubideen inguruko hiri-garapenen inguruan araudi zorrotza ezarriz. Horretarako, LPPk honako hauek proposatzen ditu:

- Ermua, Eibar eta Soralezeko hirigintza-hazkundera mugatzea.
- 1 km²-tik gorako arroa duten ibai eta ubideak estaltzea saihestea
- Urbanizatu beharreko eremu berrietan, uholdeetatik babesten duten kanalizazioak egitea; betiere, horietako bizitza ekologikoa bermatuz.
- Estaldurak irekitzea, ahal bada behintzat.

Ibilguen eta uholde-arriskuko guneen araudia EAeko Ibaiertz eta Errekaertzak Antolatzeko LPSren arabera arautuko dira.

5.1.3. Ur-hornikuntza

Ur-hornikuntzari begira, jarduketa hauek egingo dira esku-hartze estrategiko gisa:

- a. Aixolako urtegiaren arroan, Kilimongo iturburuetan eta Arranbide errekan higadura edo kutsadura eragiten duten lurzoru-erabilerak debekatuta dauden drainatze-eremuak babes-eremutzat ezartzea.
- b. Sareen interkonexioa hobetzea, deposituak hasiera nahiz helmuga izan daitezen aldi berean.
- c. Ibur eta Aixolako urtegia hornituko dituen esparru bat ezartzea: Mallabia, Ermua, Eibar eta Zaldibarko auzoak.

Eibar udalerrirako ur-hornikuntza Aretxabaletako Urkulu urtegiarekin osatu da.

5.1.4. Saneamendua

Honako hauek ezartzen dira esku-hartze estrategiko gisa:

- a. Lau esparru zonakatzea, bakoitza ur zikinen araztegi batekin: Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku.
- b. Mallabia eta Soraluzetik Elgoibarreraino arro osoa zeharkatzen duen hodi biltzaile orokorra egitea

Mallabiko hiriguneko saneamenduaren eta Apraizko araztegiaren arteko lotura lizitazio-fasean dago eta Mendaroko udalerriko saneamenduaren ponpaketa egiteko dago.

5.2. Energia

5.2.1. LPPk proposatutako eredia

LPPk, energia-arloko esku-hartze estrategikotzat adierazten ditu honako hauek:

- a. Oizko Parke Eolikoaren kokapena ezartzen da, Energia Eolikoaren LPSko zehaztapenen arabera.
- b. Mutriku-Deba linea sustatu beharko da hornikuntza bermatzeko, aurreikusitako garapenak aintzat hartuta.
- c. Urtegiak babestu egingo dira, horien aprobetxamendu hidroelektrikoa egin ahal izateko.
- d. Gas-sareari dagokionez, eskualdearen hegoaldean hiri-banaketako instalazioak osatzea lehenetsiko da, Mallabia, Ermua eta Eibarren. Bigarren lehentasun gisa, eremuaren erdigune eta iparraldeko gunetan sareak instalatzeko lanak egingo dira.

Energia Eolikoaren LPSk Oizen aurreikusitako parke eolikoa funtzionatzen ari da jada. Aprobetxamendu hidroelektrikoari dagokionez, zenbait urtegi daude Deba ibaian, Elgoibarren, minizentral elektrikoekin. Bestalde, 2011n, Mutriku olatu-energiako instalazio bat inauguratu zen, kanpoko dikean kokatuta dagoena; horretan, energia elektrikoa sortzen da itsasoko olatuen mugimendua aprobetxatuz.

5.2.2. LAG eta LPP

Energia-arloko Gidalerroak LAGetako araudiaren 16. artikuluan arautzen dira, eta, horretan, honako hau ezartzen da Lurralde Plan Partzialetarako:

1. *Lurralde-plangintzak honako hauek egin beharko ditu:*
 - a) *Erabilera-eskema orokor bat ezartzea, nahitaezko mugikortasunaren ondoriozko lekualdaketak murrizteko.*

- b) *Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko behar diren azpiegiturak ezartzeko lur-erreserba egokiak biltzea, energia-alorrean ezarritako helburuak betetzeko behar adinako kopuruan eta ahalmen nahikoarekin.*
- c) *Energia Elektrikoa Garraiatzeko Sarearen plangintza kontuan hartzea, sare horretan bildutako instalazioak kokatzeko behar diren lur-erreserbak eginez.*
- d) *Garapen-ardatz linealak indartzea, garraio publikoko zerbitzuen erabilera bultzatzeko eta polizentrismoan oinarritutako hiri-egitura eraginkor eta trinkotuak sustatzeko, hartara lekualdatze-premiak murrizteko.*
- e) *Energia-jasangarritasuna ebaluatzeko azterketa bultzatzea, energia-kontsumoaren eta energia-aurreztearen eta -efizientziaren gainean nola eragiten duen aztertze, eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.*

5.3. Ekonomia zirkularra

5.3.1. Hondakinen kudeaketa

- LPPk proposatutako eredia

LPPk honako esku-hartze estrategiko hauek jasotzen ditu hondakin solidoei dagokienez.

- a. *Hondakin Solidoen Planaren soluzioa jasotzea: gaikako bilketaren bidez birziklatzea eta hondakindegia kontrolatuak erabiltzea.*
- b. *Eskualde-hondakindegia gisa ezartzea Lapatz hondakindegia, Azpeitian, Urola Kostako mankomunitatearekin partekatzen dena. Hondakinak Mutriku eta Eibarko transferentzia-estazioetatik lekualdatzen dira.*
- c. *Albitxuriko hondakin inerteen hondakindegia instalatzeko, ingurunera egokitzeko eta finkatzeko lanak egitea Elgoibarren eta Betearren, Mallabian.*

Gaur egun, Lapatz hondakindegia itxita dago jada eta hiri-hondakinak Eibarko transferentzia-instalaziotik Igorreko hondakindegira garraiatzen dira. Hondakin organikoak konposta egiteko Epeleko instalaziora bidaltzen dira, Bergaran, eta ontziak Legazpiko ontzi arinak bereizteko instalazioan prozesatzen dira. Hondakin inerteen hondakindegiei dagokienez, Albitxurikoa finkatuta dago eta Betearrekoak hondakinak jasotzen jarraitzen du.

- LAG. Hondakinen kudeaketa

17.2. artikulua.- Lurralde-plangintza egitean hondakinen gaikako bilketarako eta birziklatzeko helburu batzuk zehaztea, horiek kudeatzeko behar diren erreserbak zehaztuz, banaketak eremu funtzional osoari zerbitzu bikaina eta orekatua bermatzeko moduan.

5.3.2. Lurzorua Baliabide gisa

- LPPk proposatutako eredia

LPPk lurzorua ingurune fisikoan baliabide gisa mantentzea jorratzen du, akuiferoen eta arro drainatzaileen babesaren ikuspuntutik, baita Balio Estrategiko Handiko lurzoruen babes ere. Hiri-ingurunean, proposatutako esku-hartze asko kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagozkie; beraz, helburua industria-jardueraren ondorioz kutsatuta dauden lurzoru guztiak berroneratzea eta garbitzea da. Nabarmenezkoa da, kokaguneen antolamenduan, industria-lurzoru zaharkituak berroneratzearen aldeko apustua egiten dela.

- LAG. Lurzorua Baliabide gisa

LAGetan, lurzorua lurralde-jasangarritasunaren elementu nagusitzat jotzen da, ura eta airea lurzoruaren kalitatearen arabera baitira. Helburua degradazio garbia zero izatea da. LAGen arlo horretako zehaztapenak araudiaren 18. artikuluan garatzen dira:

1. Lurralde- eta hiri-plangintzarako ereduen garapena bultzatzea, lehentasuna emanaz hiri-espazioak eta lehendik dauden azpiegiturak, hala nola hondakindegia zigitatu zaharrak, berritzeko, birziklatzeko eta leheneratzeko eta berreraultzeko jardueri; halako azpiegiturak ingurumen-azpiegitura edo - ekipamendu gisa kalifikatu beharko dira.

2. Lurzoruaren erabilerak «lurzoruaren kalitatearen» faktorea kontuan hartuz planifikatzea, giza osasunerako eta ekosistemen funtzionamendurako onartezinak diren arriskuen prebentzioa ziurtatzeko, eta kutsatzaileak beste ingurune-konpartimentu batzuetan sakabana daitezten saihesteko eta baliabideen erabilera optimizatzen.

5.4. Ondorioak

1. Hornikuntzaren arloan, lehendik dagoen hornikuntza-sarea osatu egin da, Eibar Urkulu urtegiara konektatuta. Saneamenduari eta uren arazketari dagokienez, Mutriku, Deba eta Elgoibarko araztegiak funtzionatzen ari dira. Mendaroko araztegia ez da eraiki; horren hordez, Elgoibarko Apraiz araztegiainoko ponpaketa egitea erabaki da, nahiz eta oraindik ez den gauzatu. Mallabian egiteke dagoen beste saneamenduari dagokionez, hirigunetik Apraizko araztegiainoko saneamendu-ponpaketaren proiektua lizitazio-fasean dago.
2. Energia-arloan, Oizko parke eolikoak garatu da, Energia Eolikoaren LPSn jasota dagoena. Mutrikuko olatu-energiaren instalazioa ere garatu da, 2011z geroztik funtzionatzen ari dena.
3. Ekonomia zirkularraren arloan, LPPk une hartan indarrean zegoen hondakinen kudeaketarako eredia jasotzen zuen, lehendik zeuden azpiegiturekin; baina egoera aldatu egin da, erreferentziako hondakindegia itxi egin baita. Hondakinen kudeaketa Debabarreneko Mankomunitateak egiten du eta bertan bereizten dira hondakinak, dagozkien instalazioetara bideratzeko.
4. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, hondakinen kudeaketa modu integralean jorratu beharko litzateke, lurzoruari gero eta protagonismo handiagoa emanaz baliabide gisa, eta ez soilik eremu sentikor edo produktiboenen babesa landuta.

6. MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

6.1. Mugikortasun Multimodala

6.1.1. LPPko zehaztapenak

Eskualdeko mugikortasuna Donostia-Bilbo linearen bidez zertzen da; linea horrek hirigune garrantzitsuenak zeharkatzen ditu, Mallabia, Sorluze eta Mutriku izan ezik, eta oso garrantzitsua da Ermua eta Eibar arteko maiztasun handiko eskualde-garraiorako.

Gainerako harremanak errepide bidezko garraio publikoaren bidez estaltzen dira: eskualdeko garraio-lineak ibarrean zehar, eskualde mugakideekiko loturak eta ibilbide luzeko lineak Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Santander edo Madrilekiko konexioekin.

6.1.2. LAG eta LPP

LAGetako 25. artikulua gidalerroak ezartzen ditu mugikortasun multimodalaren arloan, eta, zehazki, lurralde-plangintzarako:

4.- Lurralde- eta hirigintza-plangintzetan garraio publiko intermodaleko sistema integralak lantzea, garraio-bide garbiei eta hiri-autobusetako lehentasuneko trafiko-lineek –hala nola zirkulazio bizkorreko autobusak– eskaintzen dituzten aukerei arreta berezia eskainiz.

Mugikortasuna LPPn jorratzen da, aldiriko tren-zerbitzuak hobetuz eta bidegorriak gauzatu. Baina etorkizuneko berrikuspen batean arlo hori modu integralean jorratu beharko litzateke.

6.2. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

6.2.1. LPPko zehaztapenak

Gaur egun, zenbait landa-esparruk paseatzeko eta aisiarako oinezkoen bide gisa erabiltzen den bide-sarea dute. Baina LPP onetsi zen unean, ez zegoen bizikletentzako biderik.

Helburua eskualde guztitik ibilgailu pribatuak erabili behar izan gabe desplazatzea da, garraio ez-motorizatuaren eta oinezkoen garraiorako sare alternatibo bat sortuz eskualde-mailan; horretarako, lurraldea egituratzen duten tokiko bideak eta eskualde-errepideak erabiliko dira, eta, xede horrekin, zenbait zirkuitu ezarri behar dira. Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSn ezarritako trazadurak jasotzen dira:

- Areitio-Ermua-Eibar-Elgoibar-Mendaro-Sasiola, konexio-ardatz nagusia eskualdearen barruan.
- Saturraran-Mutriku-Deba-Iltziar-Elorriaga, kostaldeko esparrua batzen duen zeharkako ardatza; horren luzapena Urola Kosta eta Gernika-Markina eremu funtzional mugakideekin konektatzen da.
- Sasiola-Mutriku, ardatz nagusiak haien artean konektatzen dituen.
- Bidegorria Maltzaga-Soraluze-Osintxu trenbide-trazadura zaharraren gainean, Debagoieneko eremu funtzionalarekin konektatzen dena.

Jarduketa horietatik, zenbait tarte egin dira, hala nola Soraluze-Osintxu bidegorria, Elgoibarko bidegorriaren tarte bat eta Ermuko bidegorriaren tarte txiki bat. Gainera, Elgoibarko bidegorriarekin lotzen den bidegorriaren Eibarko tarteko lanak gauzatzen ari dira.

6.2.2. LAG eta LPP

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren arloko Gidalerroen 26. artikulua honako hau ezartzen du lurralde-plangintzarako:

4.- Lurralde Plangintzak honako hauek egin beharko lituzke:

- a) *LPPetan, EAEko Bizikletentzako Ibilbideei eta oinezkoentzako ibilbideei buruzko Plan Zuzentzailea garatzea Eremu Funtzionalaren mailan, guneen arteko konexio-sarea sortuz.*
- b) *Donejakue Bidea, Inaziotar Bidea, Itsasoaren Bidea, Ardoaren eta Arrainaren Bidea, Kataluniatik Galiziara doan GR-1 Bidezidor Historikoa, Arabako Artzaintza Naturbidea eta Ebroko Bide Naturala eranstea.*

LPPk Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSko trazadurak jasotzen ditu, baina horiek gauzatzea denboran luzatzen ari da. Halaber, oinezkoentzako bideen sare bat jasotzen da; horretan, lehendik dauden bideak interes naturaleko lekuetara eta hiri inguruko eta eskualdeko parkeetara sartzeko erabiltzen dira. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, oinezkoentzako ibilbide gisa jaso beharko lirateke Donejakue Bidea eta Itsasoaren Bidea, Mutriku eta Deban zehar.

6.3. Bide Mugikortasuna

6.3.1. LPPko zehaztapenak

Errepideen arloko helburuak hauek dira: eskualde mugakideekiko komunikazioa hobetzea, oro har, eta galtzadaren baldintzak hobetzea eskualdeko errepide-sare osoan, bai trazadurari eta bai zoruaren kalitateari dagokienez. Eremu funtzionaleko errepideak Kanpoko Sarbide Sare Orokor, Lehen Mailako Banaketa Sare eta Tokiko Irisgarritasuneko Sare Nagusi gisa egituratzen dira. 39. artikuluan zehazten dira sare bakoitzarentzako esku-hartze estrategiko hauek:

- a. Kanpoko Sarbide Sarea:
 - Mendaro eta Deba bitartean sarbide-lotune berri bat izatea iradokitzen da.
 - Gasteiz eta Eibar bitarteko autobidea amaitzea
- b. Lehen Mailako Banaketa Sarea
 - N-634 errepidean zehar errepide-segurtasuna hobetzeko jarduketak gauzatzea
 - N-634 eta GI-638 errepideak paisaia-intereseko gisa izendatzea kostaldeko tartean, horien diseinua turismo- eta aisia-funtzio horretara moldatuz, gelditzeko puntuak, begiratokiak, aparkaleku puntualak, piknik-guneak eta abar hornituz.
 - Ermua eta Eibar, Elgoibar eta Deba ingurabideak gauzatzea.
 - Ermuko ingurabidearen bigarren zatia gauzatzeko, ingurabide hori iristen den Goitondoko poligonoa garatu beharko da.
 - Elgoibar eta Debako ingurabideak egin baino lehen, bideragarritasun-azterketa egin beharko da, maila tekniko-ekonomikoan trazadura egokiena zein den zehazteko.
 - Elgoibar eta Etxebarria-Markina lotuko dituen bide berria egitea, GI-2636 errepidea ordezkatzeko
- c. Tokiko Sarbide Sare nagusia
 - Mutrikura sartzeko eta hori inguratzeke zuzenketa-trazadura egitea, Sasiola-Astigarribiatik.

6.3.2. Lurraldeko plangintza sektoriala

Errepideen arloan, LPPk EAeko, Gipuzkoako eta Bizkaiko Errepide Planen proposamenak jasotzen ditu, eta honako jarduketak hauek proposatzen dira:

- Errepideen Plan Orokorra:
 - Eibarko saihezbidea amaitzea, 3. fasea gauzatuz
 - N-634 eta GI-638 errepideen arteko lotune berria egitea
- Gipuzkoako Errepideen Plana
 - Mutrikuko saihezbidea gauzatzea, Saturraranerantz jarraituz, eta Mutriku-Deba tartea moldatzea
 - Eibar-Markina eta Sasiola-Mutriku errepideak zabaldu eta hobetzea
 - N-634 errepidearen Eibarko saihezbidea luzatzea
- Bizkaiko Errepideen Plana
 - N-634 errepidearen Gipuzkoa-Ermua saihezbidea
 - BI-2301 errepidearen trazadura zuzentzea, Ermua-Zuberri
 - BI-2636 errepidearen trazadura zuzentzea, Etxebarria-San Migel gaina, Elgoibar-Markina ardatzaren luzapen gisa
 - N-634 errepiderako errei motela, Ermua-Areitio

Jarduketa horietatik, honako hauek gauzatu dira jada: Eibarko saihezbidea; Ermuko saihezbidearen lehen fasea; N-634 eta GI-638 errepideen arteko lotune berria, Deba ibaiaren gaineko zubiarekin; Deba-Mutriku errepidearen hobekuntza; eta N-634 errei motela, Ermua-Areitio. Ermuko saihezbidearen lehen fasea eta Eibarko saihezbidearekiko konexioa eraikita, AP8 autobidearen San Lorentzoko ordainlekua Zaldibarrera lekualdatu da, eta konexio berri bat dago sarbide berri horretatik autobidera, Areitioko gaina tunel batean zehar goz.

Debako AP8 autobideko lotune berria (Arriola-Arzabal) eta Elgoibar eta Debako saihezbideak, eta Etxebarria-Markina bide berria, ez dira jasotzen indarrean dauden Errepide Planetan. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean bide berrien bideragarritasuna birplanteatu beharko litzateke, eta bide horiek, bestalde, proposatutako garapen berriak baldintza ditzakete.

6.3.3. LAG eta LPP

LAGek honako konexio mota hauetan egituratzen dute errepide-sistema:

- a) Euskal Hiriburuen Gune anitzeko Sistemaren kanpoko konexioak
- b) Euskal Hiriburuen Gune anitzeko Sistemaren interkonexioak
- c) Eremu Funtzionalen interkonexioak
 - Plentzia – Elgoibar
 - Azpeitia-Azkoitia Elgoibarrekin
- d) Paisaia-intereseko bideak, honako ibilbide hauekin bat:
 - Kostaldekoa, Deba-Mutriku-Ondarroa-Lekeitio-Ea-Ibarrangelu-Arteaga
 - Deba-Zumaia-Zarautz

LPPren helburu nagusiak eskualde arteko konexioak hobetzea eta galtzadaren baldintzak hobetzea dira. Horretarako, hobekuntza puntualak eta galtzada-hedapenak proposatzen ditu, EAEko, Gipuzkoako eta Bizkaiko Errepideen Planetan hein handi batean jasota daudenak. Halaber, paisaia-interesekotzat deklaritzen du Zumaia eta Ondarroa bitarteko N-634 eta GI-638 errepideen itsas tartea, eta hori koherentea da LAGetan ezarritakoarekin.

6.4. Trenbide-mugikortasuna eta -logistika

6.4.1. LPPren eredia

Gaur egun dagoen trenbideak Bilbo eta Donostia lotzen ditu, eta «tranbia» zerbitzua eskaintzen du Eibar eta Ermua artean, 15 minutu inguruko maiztasunarekin. Trazadura, azpiegiturak eta gainegiturak berritzea proposatzen da, eta ekintza zehatz gisa, honako hauek proposatzen dira:

- Euskotrenen zerbitzuak eta aldiriko trenen maiztasunak handitzea: Ermua-Eibar-Elgoibar-Deba
- Tranbia-trazadura berri bat egitea (Maltzaga-Bergara), Debagoienarekin konektatuz.
- Geraleku berriak hornitzea, zerbitzua osatzeko: Azitain Eibarren, Maltzaga eta Lerun-Arriaga Elgoibarren
- Euskotrenen lineetako maiztasunak hobetzea, Bilbo eta Donostiarekiko konexioetan.
- Autobus-lineak Euskotrenen lineekin sinkronizatzea.

6.4.2. Politika sektorialak

Trenbide Sarearen LPSk eta horren aldaketek LPPn islatzen diren proposamenak jasotzen dituzte. Hauek burutu dira: Ermuko San Lorentzo geralekuaren eta Eibarko Unibertsitatearen arteko linea zabaltzea, Ardantzako geltoki berria, Eibarko geltokia berritzea, Azitaingo geraleku berria, Ermuko geltoki berria eta Ermua-Zaldibar trenbide-saihesbidea.

6.4.3. LAG eta LPP

LAGek aldiriko trenen zerbitzuen garrantzia aitortzen dute, mugikortasun jasangarriko sistemak garatzeko. Eremu funtzional honetarako, Debabarrenen Eraldaketa Ardatzean zehazten da beharrezkoa dela «Euskotrenen linea hiriarteko mugikortasunerako garraio kolektiboko euskarri garrantzitsu gisa bultzatzea, Eremu Funtzional mugakideekin konexioak erraztuz, baita Bilborekin eta Donostiarekin ere. Bilbo-Donostia aldiriko metropoli-zerbitzuaren garrantzia azpimarratzen da, ibilbide osoan zehar jarraipena duena.»

Zerbitzu eta maiztasunak areagotzeari, linea bikoiztuz trazadurak hobetzeari eta Ermuko, Ardantzako, Eibarko eta Azitaingo geltokiak hobetzeari loturiko proposamenak LAGetan ezarritakoarekin datoz bat, eta Bilbo-Donostia linearen aldiriko metropoli-zerbitzuaren garrantzia nabarmentzen da, mugikortasun jasangarriko sistema gisa.

6.5. Portuak

6.5.1. LPPren eredia

Mutrikuko portuan, gaur egun, arrantza-erabilera da nagusi. LPPren helburua arrantza- eta aisia-erabilera mistora eraldatzea da, eta, horretarako, Mutrikuko Portuko Plan Zuzentzaileko jarduketak garatzea proposatzen du.

6.5.2. Politika sektorialak

Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Mutrikuko porturako itsas sarbidea hobetzea sustatu zuen, Mutrikuko Portuko Plan Bereziaren aurreikuspenetan jasota zegoena. Babes-dike berri bat egin zen, portura sartzeko baldintzak hobetzeko, eta baita hondartza birmoldatu ere. Gainera, dike berrian 2013tik funtzionatzen ari den olatu-zentrala eraiki zen.

6.6. Ondorioak

1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunean: lehendik dauden bideak erabiltzea proposatzen da, eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSko bidegorriak jasotzen dira. LPSko proposamenak motel gauzatzen ari dira.
2. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, Donejakue Bidea eta Itsasoaren Bidea jaso beharko dira Mutrikun eta Deban.
3. Errepideei dagokienez, LPPren helburu nagusiak eskualde arteko konexioak hobetzea eta galtzadaren baldintzak hobetzea dira. Horretarako, hobekuntza puntualak eta galtzada-hedapenak proposatzen ditu, EAEko, Gipuzkoako eta Bizkaiko Errepideen Planetan hein handi batean jasota daudenak. Halaber, paisaia-interesekotzat deklaratu du Zumaia eta Ondarroa bitarteko N-634 eta GI-638 errepideen itsas tarteak. Zehaztapen horiek koherenteak dira LAGetan ezarritakoarekin.
4. LPPko aurreikuspenak egikaritu egin dira Eibar eta Ermuko saihesbideei dagokienez, eta guneetako zirkulazioa arindu da. Lan horrekin, autobideko ordainlekua San Lorentzotik (Ermua) Zaldibarrera lekualdatu da.
5. Debako AP8 autobideko lotune berria (Arriola-Arzabal) eta Elgoibar eta Debako saihesbideak, eta Etxebarria-Markina bide berria, ez dira jasotzen indarrean dauden Errepide Planetan. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean bide berrien bideragarritasuna birplanteatu beharko litzateke, eta bide horiek, bestalde, proposatutako garapen berriak baldintza ditzakete.
6. Trenbide-mugikortasunean: trazaduran eta Ermua eta Eibarreko geltokietan hobekuntzak egin dira, eta areagotu egin da Ermua eta Elgoibar bitarteko zerbitzuen maiztasuna, baita Elgoibar eta Bilbo artekoa ere.
7. Zerbitzu eta maiztasunak areagotzeko, linea bikoiztuz trazadurak hobetzeko eta Ermuko, Ardantzako, Eibarko eta Azitaingo geltokiak hobetzeko loturiko proposamenak LAGetan ezarritakoarekin datoz bat, eta Bilbo-Donostia linearen aldiriko zerbitzu metropolitarraren garrantzia nabarmentzen da, mugikortasun jasangarriko sistema gisa.
8. Portuetan: babes-dike berri bat eraiki da portuaren sarbideak hobetzeko, eta hor dago energia sortzeko olatu-zentrala. Gainera, Mutrikuko hondartza birmoldatu egin da

7. EKIPAMENDUAK

7.1. LPPko zehaztapenak

LPPko memoriaren arabera, eskualdearen zuzkidura-maila ona da. Helburua zerbitzuak hobetzea da, lehendik dauden zuzkiduren tamaina handituz eta zuzkidura berriak sortuz eskariak gora egitea aurreikusten den esparruetan. Eskualdea hiru azpiesparrutan azpizatitzen da, zuzkidura-beharretan desplazamenduak murrizte aldera. Jarduketa hauek proposatzen dira:

- Burutza bat ezartzea eskualde-mailan, eta bi azpiburutza, Deba-Mutriku eta Elgoibarrerako.
- Garraio publikoa sustatzea, biztanleria zerbitzu-zuzkiduretara hurbiltzeko.
- Irakaskuntza-ekipamenduen jarduketaren artean, honako hauek daude: ikastegietako irisgarritasuna indartzea, garraio publikoa sustatuz; eskaintza ekoizpen-sarearekin lotzea; Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola eta Elgoibarko Makina Erremintaren Institutua hedatzea.
- Kirol-ekipamenduetako jarduketaren oinarrian honako hauek egongo dira: tokiko kirol-azpiegituren tamaina handitzea, baita eskola-ekipamendu osagarriak ere; Larangako itsasertzeko esparruan, futbol-errugbiko zelaian, atletismo-pista bat jarriko da, eta udalerrien artean lankidetzat-hitzarmenak ezarriko dira udalerriri txikien instalazioak erabili ahal izateko.
- Osasun-arloko jarduketak instalazioak hobetzera eta Mendaroko Eskualde Ospitalearen irisgarritasuna hobetzera orientatuko dira, baita itsasertzeko esparruan anbulatorio bat sortzera ere.
- Udalerriri bakoitzaren berezko aukerei loturiko jarduketa kulturalak sortzea.
- Ekipamendu asistentzialeko plaza berriak sortzea.
- Erabilera turistikoari loturiko ekipamenduak egikaritzea itsasertzeko esparruan zein barnealdean: Saturrarango hondartza antolatzea, Mutrikuko portua kirol- eta arrantza-erabilerarekin moldatzea.
- Lehentasunezko baliabide turistikotzat zehaztuko dira Mutriku, Deba, Elgoibar, Soralue eta Ermuko hiriguneak, baita ondasun babestuen inbentarioan ageri diren monumentuak, eraikinak eta abar ere.
- Bi parke tematiko egingo dira: uraren zikloari eta sistema karstikoari buruzko bat; eta etxeko animalia-arrazei eta nekazaritza-barietate autoktonoei buruzko parke tematikoa
- Kanpinak: dagokien araudi espezifikoa bete beharko lukete

7.2. Politika sektorialak

Osasunaren arloan, duela gutxi Eibarren anbulatorio berri bat eraiki da, baita ospitale bat ere, paziente kronikoei arreta emateko erreferentziako eskualde-ospitale gisa eratu dena.

7.3. Ondorioak

1. Ekipamenduen arloko jarduketak lehendik dauden zuzkidurak hobetzera zuzenduta daude, lehendik dauden kirol-zuzkiduren tamaina handituz eta osasun-instalazioak hobetuz. Ekipamendu berri gisa, erabilera turistikoari loturiko elementuak gauzatzea aurreikusten da, bai itsasertzean, bai barnealdean. Etorkizuneko berrikuspen batean, aurreikusitako ekipamendu turistikoen bideragarritasuna aztertu beharko da, parke tematiko edo museo gisa. Halaber, berariaz aztertu beharko litzateke kanpinen kokapena, horiek berezko araudia izan arren.

8. ZEHARKAKO GAIAK

1997ko LAGak onetsi zirenetik, zenbait gaik garrantzia hartu dute eta eragina dute lurraldean, nahiz eta lurralde-izaera ez izan. Horiek irisgarritasun unibertsalari, genero-ikuspegiari, klima-aldaketari,

osasunari, euskarari eta lurralde arteko harremanari dagozkie. Gai horiek hiri-eredu dentso, konplexu eta kohesionatu batera eramanda, horiek txertatzearen erronkak bizi-kalitatea hobetzea dakar. Arlo berriak dira lurralde-diziplinan, LPPn jorratu ez direnak. Etorkizuneko berrikuspen batean, alderdi horiek modu integral batean hartu beharko dira aintzat, eremu funtzionalaren antolamendua hobetzeko.

II.- ONDORIOAK

II.0. Ondorio orokorrak

1. Debabarreneko Eremu Funtzionaleko LPPk 1997ko Lurralde Antolamenduko Jarraibideekin eta uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartutako Lurralde Antolamenduko Jarraibide berriein bat datorren lurralde-eredua garatzen du. Hala ere, azken horiek zenbait kontzeptu berri jasotzen dituzte, hala nola azpiegitura berdea, ekosistemen zerbitzuak, klima-aldaketa, baliabideen kudeaketa jasangarria, genero-ikuspegia, osasuna, irisgarritasun unibertsala, euskara, partaidetza eta gobernantza.
2. Lurralde Eredua asko landu zen bere garaian eta udal-plangintzek eredian azaltzen diren proposamen gehienak jaso dituzte. Baina garatu gabe dauden bizitegi-garapenei buruzko zenbait zehaztapen berrikusi egin behar dira.
3. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, eremu funtzionala, ingurune fisikoa eta hiri-ingurunea osatzen duten elementuak aztertu behar dira, eguneratutako optika hori aldi horretan sortu diren baldintzatzaile berrien arabera txertatzeko.

II.1. Ingurune fisikoa

1. LPPko Ingurune Fisikoaren kategorizazioak babestu beharreko natura-esparruak jasotzen ditu eta koherentea da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin, bai antolamendu-kategorietan, bai baldintzatzaile gainjarrietan, korridore ekologikoei eta klima-aldaketari dagozkienetan izan ezik. Bi azken horiek kontuan hartu behar dira LPPren etorkizuneko berrikuspen batean.
2. LPPk Arno-Olatz, Izarraitz eta Artibai ibaia espazio babestuak jasotzen ditu, nahiz eta horiek LPP behin betiko onartu ondoren deklaratu diren Babes Bereziko Eremu.
3. Ingurune fisikoaren zonakatzea eta LPPko proposamenaren araudia koherenteak dira Ibai eta Erreken, Itsasertzaren eta Hezeguneen Antolamendurako Lurralde Plan Sektorialekin. Nekazaritza eta Basogintzako LPSren kasuan, LPPk Elgoibar eta Mendaroko Balio Estrategiko Handiko eremuetan koordinatu beharko lituzke zehaztapenak. Kasu guztietan, LPPk dagozkion eremuen mugatze grafikoa jasotzen du eta oinarritzko araudi bat ezartzen du, dagokion LPS aipatzen duena.
4. Azpiegitura Berdeari eta Ekosistema Zerbitzuei dagokienez, LPPk horrela aipatzen ez dituen arren, hirigintza-plangintzarako babes-kategoria lotesleetako batean jasotzen ditu LAGetako Azpiegitura Berdea osatzen duten elementu gehienak. Hala ere, korridore ekologikoak kontuan hartu behar dira LPPren etorkizuneko berrikuspen batean.

II.2. Landa-habitata

3. LPPk nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak enplegua sortzen duten jarduera gisa babestea aurreikusten du, eta landaguneak babestea proposatzen du, asmoaren araberako baldintzak ezarriz. Ildo horretan, LPP bat dator LAGek landa-habitataren arloan emandako gidalerroekin.
4. Landa-habitatako lurralde- eta ingurumen-kudeaketako funtzioetan sakondu beharko litzateke, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea sustatuz eta ikuspegi berriak txertatuz, hala nola gizarteratzea edo klima-aldaketa.

II.3. Eraldaketa Ardatzak.

1. Eraldaketa Ardatzak: LPPko Lurralde Ereduan jasotako proposamenak koherenteak dira LAGetako Debabarreneko Eraldaketa Ardatzeko proposamenekin, eta apustu garrantzitsua egiten da hiri-berroneratzearen eta hiriguneak arintzearen alde, baita trenbidearen trazadura eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako sarea hobetzearen alde ere.
2. Eraldaketa Ardatzerako proposatzen diren helburuak betetzeko lanetan jarraitu behar da, hala nola Deba ibaiaren ertzak leheneratzen, hiri- eta landa-garapenak egituratzen, eta Urdaibai-Goierri korridorearen iragazkortasun ekologikoa sustatzen, Areitiotik.

II.4. Bizitegi-kokaguneak.

1. LPPren helburu nagusia bizitegitarako hiri-eremuen dentsitate handia murriztea da. Horretarako, bizitegi-pilaketak arintzeko eskualdeko hirigintza-politikak ezartzen ditu, arazoa modu integralean jorratzen dutenak.
2. Barnealdeko esparruaren (Eibar, Ermua, Soraluze eta Mallabia) bereizgarria dentsitate handia da, eta hiri-bilbean txertatutako industria-esparruak egotea, distortsioak eragiten dituztenak. Horietan, industria-lurzoruak bizitegi-lurzoru bihurtzeko jarduketak aurreikusten dira. Halaber, itsasertzeko esparrua sustatzen da, biztanleria erakarri eta joera demografikoa aldatuko duen bizitegi-hazkundearekin, barnealdeko esparrua arinduz.
3. Bizitegitarako eskaintza modu globalean aurreikusten da, udal mailako beharrak (garapen berrietan eta barne-erreforman banatuta) eta eskualde-mailakoak estaltzeko; halaber, bigarren bizilekuak ere aintzat hartu dira.
4. Hiri-berroneratzeak lotura estua du esparru dentsioenak arintzearekin. Hirigune Historikoen Birgaitze Integraturako zehaztapenak eta industria-espazio zaharkituak birmoldatu edo eraldatzeko jarduketak jasotzen dira, garatu ez direnak, ziurrenik, kudeatzeko zailak direlako. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, berroneratzea modu integralean jorratu beharko da, eremu degradatuak eta leheneratu beharrekoak identifikatuz.
5. LPPk dentsitate baxuko bizitegi-garapen handia aurreikusten du Deba eta Mutrikurako, biztanleria itsasertzerara erakartzeko eta barnealdea arintzeko. Aurreikuspen horiek ez dira garatu eta ez daude jasota udal-plangintzetan. Lehendik dagoen bizitegi-ahalmena nahikoa dela uste da, eta Debakoa handiagoa da LAGetan ezartzen dena baino. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, barnealdeko esparrua arintzeko modu gisa, aipatutako bi udalerrriak sustatzeari buruzko zehaztapena aztertu beharko litzateke.
6. Elgoibarren, LPPk AP8 autobidearen hegoaldean aurreikusten dituen bizitegi-lurzoruak eta Urasandi iparraldeko lurzorua ez dira kontuan hartu udal-plangintzan. Baina autobidearen ondoko lurzoruen kasuan, Nekazaritza eta Basogintzako LPSn Nekazaritza eta Abeltzaintzako lurzoru eta Landazabal – Balio Estrategiko Handiko lurzoru gisa kategorizatuta daude, eta, beraz, ez lirateke egokiak izango bizitegi-garapen baterako. Urasandi iparraldeko lurzoruen kasuan, malda handiko lursailak dira eta horrek garapena zaildu egiten du.
7. Eibarren, Alfa ingurunea birmoldatu egin da bizitegi-lurzoru izateko; horretan, gainera, ibaia agerian uzteko eta espazio libreak lortzeko jardun da. Matsaria eta Asua Erreka eremuetan, jarduera ekonomikoetatik bizitegi-erabilerara birmoldatzeko eremuak ez dira aintzat hartu plangintzan.

II.5. Bizitegi-kuantifikazioa

1. 2019ko LAGetako aurreikuspenek bizitegi-kuantifikazioaren zifrak beheratu egin dituzte LPPk ezarritako tartearerikiko. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzetarako buruzko datuek agerian uzten dute Eibarko aurreikuspenak LAGetako kuantifikazioaren antzekoak direla, Elgoibarkoak oso gaineratik daudela eta Deba, Ermua eta Soraluekoak ere gaineratik daudela. Gainerako udalerriei dagokienez, Mallabiak, Mendarok eta Mutrikuk ahalmen txikiagoa dute LAGetan ezarritako kuantifikazioa baino.
2. Garapen-erritmoa askoz biziagoa izan da LPPren indarraldiko lehen 8 urteetan (2005-2012), guztira 2.556 lizentzia eman baitziren, 2013az geroztik eman diren 479 lizentziekin alderatuta. Azken urteetako garapena ikusita, uste da udalerrri guztiek bizitegi-ahalmen nahikoa dutela.
3. Datu horiekin, ondoriozta daiteke LPPren etorkizuneko berrikuspen batean aintzat hartu beharko dela proposatutako bizitegi-kuantifikazioa, lurralde-jasangarritasun handiagoa lortzeko eta kuantifikazio-proposamenak murrizteko.

II.6. Jarduera ekonomikoak

1. LPPk bi lurzoru-erreserba handi aurreikusten ditu Albitxurin (Elgoibar) eta Goitondon (Mallabia), udal-plangintzan kalifikatuta daudenak hein handi batean eta proportzio handi batean finkatuta daudenak. Eibarren, lurzoru-poltsa handi bat kalifikatu da Erisonon, Azitaingo industrialdearen hedapen gisa, eta Matsaria eta Asua Errekako industria-lurzoruak bizitegi-erabilerarako birmoldatzeko eremuak HAPOn jarduera ekonomikoetarako lurzoru gisa mantentzen dira.
2. LPPn jarduera ekonomikoetarako aurreikusitako lurzoruen 484 ha-tik, plan orokorrek 405 ha kalifikatu dituzte, eta, horietatik, 100 ha inguruk hutsik jarraitzen dute. Hortaz, LPPk jarduera ekonomikoetarako lurzoru-ahalmena mantentzen du.
3. LPPn egiten diren eta hirigintza-plangintzetan jasota ez dauden lurzoru-erreserbetatik, 52 ha Mallabian daude, Goitondon (38,6), Urtian (6,30) eta Areitioan (7,10) banatuta. Azken kasu horretan, plangintza etenda dago. Beste kasu batzuetan, hala nola Elgoibarko Lerun Txiki edo Mendaroko Aizkoltxo eremuetan, udal-plangintzak LPPn erreserbatutako lurzoru bako bako gutxiago kalifikatu du. LPPk Eibar, Zaldibar eta Elgeta artean dagoen Ibur Erreka industrialdeko erreserba ere badu, 9,60 ha eta orografia konplexu eta kudeaketa zaila dituen.

II.7. Hiri Berrikuntza

4. LPPren helburu nagusietako bat kongestionatutako eremuen hiri-berroneratzea da, eta, horretarako, Eibar (Txonta, Matsaria, Asua Erreka), Ermua (Engranajes Ureta) eta Elgoibar (Urasandi) hiri-bilbeetan integratutako industria-esparru zaharkituak birmoldatzea zehazten du.
5. Industria-esparruak birmoldatzeko jarduketetatik, lanak gauzatzen ari dira Eibarko Txonta esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratzeko Zuzendaritzaren laguntzarekin.
6. Etorkizunean LPP berrikustean, hausnarketa integrala egin beharko litzateke eremu degradatuei eta lehentasunezko esku-hartzea behar duten eremuei buruz.

II.8. Hiri Hazkundearen Perimetroa

1. Eremu funtzionalaren orografia malkartsuak, batetik, hiri-orbana ez zabaltzea ahalbidetzen du. Bestetik, lurzorua ondasun urri gisa administratu behar da.
2. LPPk Mutriku eta Deba udalerrietan aurreikusitako erreserbak egungo bizitegi-azaleraren bikoitza baino gehiago dira eta ez datoz bat hiri-hazkundearen perimetroaren kontzeptuarekin.
3. LPPk lehendik dauden guneeetan oinarritutako hazkundeak mugatzen ditu eta zenbait baldintzatzaile definitzen ditu; horietarako, plangintzak zonakatze desberdina ezar lezake, eta hazkunde berriak xedatu mugatutako orbanetatik kanpo; betiere, horrek ez badu eragiten bizitegi-kuantifikazioa handitzea. Horrela, hiri hazkundearen perimetroaren kontzeptuarekin bateragarriak diren mugak ezartzen ditu. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, hiri hazkundearen perimetroa berariaz mugatu beharko litzateke LAGetako zehaztapenen arabera.

II.9. Paisaia, kultura- eta natura-ondarea eta turismo-baliabideak;

1. LPPk paisaia aktibo garrantzitsutzat hartzen du, lurralde osoari aberastasuna eta erakargarritasuna ematen dion aldetik, eta, alde horretatik, landa-paisaia babesteko zehaztapenak jasotzen ditu, kokaleku berrietarako ingurune fisikoa eta kokalekuak errespetatzeko irizpideak ezarriz.
2. Era berean, hiri-paisaiaren ingurumena eta kalitatea hobetzeko zehaztapenak jasotzen ditu, eta, horretarako, «Paisaia Multzo Industrialak» mugatzen ditu, eraikuntza-multzoak, hiri-inguruak, ibaien ertzak eta puntu bereziak, hala nola begiratokiak edo ontzi-atrakalekuak, leheneratzeko eta ingurumena hobetzeko.
3. Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ildoan, Debabarreneko Paisaiaren Katalogoa idatzi beharko litzateke, eremu funtzionaleko paisaia modu integralean aztertu, eta paisaia-unitateak, zehaztapenak eta Paisaia Interes Bereziako Eremuak zehaztuz.
4. Kultura-ondareari dagokionez, LPPk hirigune historikoetarako jarduketak jasotzen ditu eta Birgaitze Integratuko Eremuetan jarduteko beharra ezartzen du; horrez gain, babestu beharreko elementuen katalogoa jasotzen du. LPPren etorkizuneko berrikuspina Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea egokitu beharko da.
5. Natura-ondareari, interes natural eta geologikoko elementuei eta esparru babestuei dagokionez, ingurune fisikoan babestu beharreko eremuen kategorian sartzen dira.
6. Baliabide turistikoari dagokionez, Mutrikuko portuari eta Eibarko Armagintza Museoari buruzko proposamenak garatu dira. Ez dira egin parke tematikoak eta aurreikusitako beste museoak, eta proposamen horien bideragarritasuna aztertu beharko litzateke. Kanpin-eskaintza Mutriku eta Deba artean dauden bost kanpinetara mugatu beharko litzateke.

II.10. Baliabideen Kudeaketa Jasangarria

1. URA. Hornikuntzaren arloan, lehendik dagoen hornikuntza-sarea osatu egin da, Eibar Urkulu urtegiara konektatuta. Saneamenduari eta uren arazketari dagokionez, Mutriku, Deba eta Elgoibarko araztegiak funtzionatzen ari dira. Mendaroko araztegia ez da eraiki; horren hordez, Elgoibarko Apraiz arazteginainoko ponpaketa egitea erabaki da, nahiz eta oraindik ez den gauzatu. Mallabian egiteke dagoen beste saneamenduari dagokionez, hirigunetik Apraizko arazteginainoko saneamendu-ponpaketaren proiektua lizitazio-fasean dago.

2. ENERGIA. Energia-arloan, Oizko parke eolikoa garatu da, Energia Eolikoaren LPSn jasota dagoena. Mutrikuko olatu-energiaren instalazioa ere garatu da, 2011z geroztik funtzionatzen ari dena.
3. EKONOMIA ZIRKULARRA. Ekonomia zirkularren arloan, LPPk une hartan indarrean zegoen hondakinen kudeaketarako eredia jasotzen zuen, lehendik zeuden azpiegiturekin; baina egoera aldatu egin da, erreferentziako hondakindegia itxi egin baita. Hondakinen kudeaketa Debabarreneko Mankomunitateak egiten du eta bertan bereizten dira hondakinak, dagozkien instalazioetara bideratzeko.
4. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, hondakinen kudeaketa modu integralean jorratu beharko litzateke, lurzoruari gero eta protagonismo handiagoa emanez baliabide gisa, eta ez soilik eremu sentikor edo produktiboenen babesia landuta.

II.11. Mugikortasuna eta Logistika

OINEZKOAK ETA BIZIKLETAK

1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunean: lehendik dauden bideak erabiltzea proposatzen da, eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSko bidegorriak jasotzen dira. LPSko proposamenak motel gauzatzen ari dira.
2. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, Donejakue Bidea eta Itsasoaren Bidea jaso beharko dira Mutrikun eta Deban.

ERREPIDEAK

3. LPPren helburu nagusiak eskualde arteko konexioak hobetzea eta galtzadaren baldintzak hobetzea dira. Horretarako, hobekuntza puntualak eta galtzada-hedapenak proposatzen ditu, EAEko, Gipuzkoako eta Bizkaiko Errepideen Planetan hein handi batean jasota daudenak. Halaber, paisaia-interesekotzat deklaratu du Zumaia eta Ondarroa bitarteko N-634 eta GI-638 errepideen itsas tarteak. Zehaztapen horiek koherenteak dira LAGetan ezarritakoarekin.
4. LPPko aurreikuspenak egikaritu egin dira Eibar eta Ermuko saihesbideei dagokienez, eta guneetako zirkulazioa arindu da. Lan horrekin, autobideko ordainlekua San Lorentzotik (Ermua) Zaldibarrera lekualdatu da.
5. Debako AP8 autobideko lotune berria (Arriola-Arzabal) eta Elgoibar eta Debako saihesbideak, eta Etxebarria-Markina bide berria, ez dira jasotzen indarrean dauden Errepide Planetan. LPPren etorkizuneko berrikuspen batean bide berrien bideragarritasuna birplanteatu beharko litzateke, eta bide horiek, bestalde, proposatutako garapen berriak baldintza ditzakete.

TRENBIDEAK

6. Trenbide-mugikortasunean: trazaduran eta Ermua eta Eibarreko geltokietan hobekuntzak egin dira, eta areagotu egin da Ermua eta Elgoibar bitarteko zerbitzuen maiztasuna, baita Elgoibar eta Bilbo artekoa ere.
7. Zerbitzu eta maiztasunak areagotzeko, linea bikoiztuz trazadurak hobetzeko eta Ermuko, Ardantzako, Eibarko eta Azitaingo geltokiak hobetzeko loturiko proposamenak LAGetan ezarritakoarekin datoz bat, eta Bilbo-Donostia linearen aldiriko zerbitzu metropolitarraren garrantzia nabarmentzen da, mugikortasun jasangarriko sistema gisa.

ITSAS PORTUAK

8. Babes-dike berri bat eraiki da, porturako sarbideak hobetzeko; hor dago olatu-zentrala, edo olatu-energiaren instalazioa, itsasoko olatuen mugimendua aprobeztatuz energia sortzen duena. Esku-hartze horrekin, gainera, Mutrikuko hondartza birmoldatu da.

II.12. Ekipamenduak

1. Ekipamenduen arloko jarduketak lehendik dauden zuzkidurak hobetzera zuzenduta daude, lehendik dauden kirol-zuzkiduren tamaina handituz eta osasun-instalazioak hobetuz. Ekipamendu berri gisa, erabilera turistikoei loturiko elementuak gauzatzea aurreikusten da, bai itsasertzean, bai barnealdean. Etorkizuneko berrikuspen batean, aurreikusitako ekipamendu turistikoen bideragarritasuna aztertu beharko da, parke tematiko edo museo gisa.

II.13. Zeharkako Gaiak.

1. Zeharkako gaiak, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, osasuna, euskara eta lurralde arteko harremana, arlo berriak dira lurralde-diziplinan, eta ez dira LPPn jorratu. Etorkizuneko berrikuspen batean, alderdi horiek modu integral batean hartu beharko dira aintzat, eremu funtzionalaren antolamendua hobetzeko

II.14. Gobernantza. Lurralde-adierazleak

1. LPPko proposamenen ebaluazio-sistema bat izan beharko litzateke, LAGetan ezarritako Lurralde eta Hirigintza Jasangarritasuneko Adierazleen bitartez, lurralde- eta hiri-eremuaren eboluzioaren analisia egin ahal izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduak 4

<i>Lurralde-antolamenduko azterlanetako teknikaria</i>	<i>Lurralde Antolamendu eta Plangintzarako Zerbitzuaren arduraduna</i>	<i>O.E. / Vº Bº</i>
Técnico en Estudios de Ordenación Territorial	El Responsable del Servicio de Ordenación del Territorio y Planeamiento	<i>Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze zuzendaria</i>
Estibaliz Martin Zabala	Jesús Mª Erquicia Olaciregui	El Director de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana
		Ignacio de la Puerta Rueda

III.- ADIERAZLEAK


1.- Lurralde Eredua. Lurzoruaren kalifikazioa

Lurzoru kalifikatuen datuak bizitegi-erabileraren, jarduera ekonomikoetarako erabileraren eta sistema orokorren arabera agertzen dira, udalerrri bakoitzaren guztizko azalerarekiko eta Eredu Funtzionalaren guztizkoarekiko ehuneko gisa. Grafikoan udalerrri bakoitzean kalifikatutako azalaren konparazioa ageri da.

Ermua eta Eibar lurzoru kalifikatuen proportzio handiena duten udalerrriak dira, eremu funtzionaleko eta EAEko batezbestekoaren oso gainetik. Beste muturrean Mendaro, Mutriku eta Deba daude. Eibar (87 ha), Elgoibar (67 ha) eta Ermua (54 ha) bizitegi-erabilerarako lurzoru gehien duten udalerrriak dira, eta gutxien dutenak, berriz, Mallabia (7 ha) eta Mendaro (10 ha) dira. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruei dagokienez, Elgoibar (107 ha), Mallabia (79 ha) eta Deba (63 ha) dira azalera handienak dituzten udalerrriak, Albitxuri, Goitondo eta Itziar industrialdeak dituztelako, eskualde-izaera dutenak; eta Mendaro (13 ha) eta Soraluze (14 ha) erreserba gutxien dutenak dira.

UDALPLAN 2019 ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL	1(a) Egoitza Residencial		1(b) Jarduera Ekonomikoak Actividades Económicas		1(c) Sistema Orokorrak Sistemas Generales		1 (Lurralde Eredua - Modelo Territorial) Kalifikatua guztira Total calificado		1(d) Lurzoru Urbanizazina Suelo no Urbanizable		1 (Lurralde Eredua / Modelo Territorial) Guztira Total
	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha
UDALERRIAK / MUNICIPIOS											
Deba	36	0,71%	79	1,57%	64	1,28%	179	3,56%	4.840	96,44%	5.019
Eibar	87	3,55%	65	2,65%	103	4,19%	255	10,40%	2.201	89,60%	2.456
Elgoibar	67	1,72%	107	2,75%	56	1,45%	230	5,92%	3.653	94,08%	3.883
Mutriku	43	1,55%	16	0,59%	44	1,60%	103	3,74%	2.660	96,26%	2.763
Soraluze-Placencia de las Armas	14	0,99%	14	0,96%	26	1,86%	54	3,81%	1.349	96,19%	1.403
Mendaro	10	0,41%	13	0,53%	27	1,07%	51	2,01%	2.477	97,99%	2.528
Ermua	54	8,30%	48	7,40%	37	5,69%	139	21,39%	509	78,61%	648
Mallabia	7	0,30%	63	2,73%	37	1,61%	107	4,64%	2.203	95,36%	2.310
EREMU FUNTZIONAL / ÁREA FUNCIONAL											
Debabarrena	317	1,51%	405	1,93%	395	1,88%	1.117	5,32%	19.893	94,68%	21.010
LURRALDE HISTORIKOAK / TERRITORIOS HISTORICOS											
ÁLAVA/ARABA	5.622	1,85%	4.736	1,56%	5.424	1,78%	15.782	5,19%	288.405	94,81%	304.187
BIZKAIA	8.109	3,66%	5.223	2,36%	6.849	3,09%	20.181	9,11%	201.338	90,89%	221.519
GIPUZKOA	5.148	2,60%	3.866	1,95%	4.108	2,08%	13.122	6,63%	184.715	93,37%	197.837
E.A.E./CAPV	18.880	2,61%	13.824	1,91%	16.382	2,26%	49.086	6,78%	674.457	93,22%	723.543

Ondorengo taulan, kalifikatutako lurzoruen proportzioa ageri da, udalerrri osoarekiko, eta Ermuan dago kalifikatutako lurzoruen proportzio handiena, Eremu Funtzionaleko eta EAEko batez bestekoaren oso gaitetik.



Jarraian, lurzoru urbanizaezinen azaleren banaketa ageri da udalerrri bakoitzerako, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako lurzoru urbanizaezinen antolamendu-kategorietan. Mendaro da Lurzoru Urbanizaezinen proportzio handiena duen udalerrria, lurzoru horien % 41,5 basogintza-lurzoru gisa kategorizatuta baitu –% 21 babes bereziko eremu gisa eta % 20, ingurumen-hobekuntzarako eremu gisa–. Eibar eskualdeko udalerrri handiena da, eta bigarrena, hirigintza-helburuetarako kalifikatutako lurzoruen proportzioari dagokionez, eta plangintzan espazio librean sistema orokorren proportzio handiena kalifikatuta duen udalerrria da.

UDALPLAN 2019	1(d) 1		1(d) 2		1(d) 3		1(d) 4		1(d) 5		1(d) 6		1(d) 7		1(d)	
	Gune Irekian S.O. S.O. Espazio Libre		Babes Berezia Especial protección		Ingurune Hobekuntza Mejora Ambiental		Basos Forestal		Mendi Larreak Pastos Montanos		Nekazaritza eta abeltzaintza, eta landazabala Agrogenadera y Campiña		Gainazaleko Urten Babesa Protección de Aguas Superficiales		Lurzoru Urbanizaezina Suelo no Urbanizable	
ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%
UDALERRIAK/MUNICIPIOS																
Deba	17	0,33	674	13,43	1.189	23,69	1.097	21,86	192	3,82	1.521	32,29	51	1,02	4.840	96,44
Eibar	360	14,66	37	1,51	325	13,24	1.175	47,85	0	0,00	281	11,43	22	0,91	2.201	89,60
Elgoibar	15	0,38	335	8,62	25	0,63	2.912	75,00	0	0,00	259	6,68	108	2,78	3.653	94,08
Mutriku	15	0,56	879	31,81	453	16,39	427	15,44	0	0,00	747	27,02	139	5,04	2.660	96,26
Soraluze-Placencia de las Armas	3	0,19	445	31,74	53	3,76	596	42,45	0	0,00	198	14,10	55	3,94	1.349	96,19
Mendataro	18	0,73	526	20,82	497	19,67	1.049	41,51	0	0,00	211	8,34	175	6,93	2.477	97,99
Ermua	34	5,22	105	16,19	14	2,12	310	47,88	0	0,00	39	5,97	8	1,23	509	78,61
Mallabia	5	0,20	153	6,63	3	0,15	1.467	63,53	0	0,00	547	23,68	27	1,17	2.203	95,36
EREMU FUNTZIONALAK / ÁREAS FUNCIONALES																
Debabarrena	467	2,22	3.154	15,01	2.559	12,18	9.034	43,00	192	0,91	3.902	18,57	586	2,79	19.893	94,68
LURRALDE HISTORIKOAK / TERRITORIOS HISTÓRICOS																
ÁLAVA/ARABA	1.088	0,36	72.743	23,91	5.426	1,78	91.094	29,96	5.032	1,65	92.328	30,35	20.694	6,80	288.405	94,81
BIZKAIA	2.514	1,13	42.640	19,25	5.510	2,49	60.807	27,45	520	0,23	76.869	34,70	12.478	5,63	201.338	90,89
GIPUZKOA	3.073	1,55	48.049	24,29	7.196	3,64	64.320	32,51	1.888	0,95	52.901	26,74	7.289	3,68	184.715	93,37
E.A.E./CAPV	8.675	0,92	163.432	22,59	18.132	2,51	216.221	29,88	7.440	1,03	222.098	30,70	40.460	5,59	674.457	93,22

2.- BIZTANLERIA-DENTSITATEA

2. adierazleak udalerrri bakoitzaren biztanleria-dentsitatea agertzen du, azalerarekiko, km²-tan. Batetik, udalerrriaren dentsitate orokorra (2a) islatzen du, eta, bestetik, hiri-dentsitatea, bizitegi-erabilerarako, jarduera ekonomikoetarako eta sistema orokorretarako kalifikatutako azalera aintzat hartuta.

Ermua eta Eibar dira dentsitate handiena duten udalerrriak, bai dentsitate globalari bai hiritarrari dagokienez, eta eremu funtzionalaren batezbestekoaren oso gainetik daude, baita Lurralde Historikoko eta EAeko batezbestekoaren gainetik ere. Mallabia eta Deba, berriz, dentsitate global eta hiritar txikiena duten udalerrriak dira, Eremu Funtzionalako eta EAeko batezbestekoaren oso azpitik.

UDALPLAN 2019	BIZTANLERIA / POBLACION			DENTSITATEAK / DENSIDADES			
	Guztira Total	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Azalera guztira Superficie Total	2 a Dentsitatea / Densidad	Kalifikatutako hiritar azalera Superficie urb. calificada	2 b Hiritar dentsitatea / Densidad urbana
ESPARRUA	Biz. - Hab.	Biz. - Hab.	Biz. - Hab.	km ²	Biz./km ² - Hab./km ²	km ²	Biz./km ² -Hab./km ²
ÁMBITO TERRITORIAL							

UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Deba	5.437	2.730	2.707	50,14	108,33	1,79	3.044,23
Eibar	27.138	13.117	14.021	24,69	1.104,97	2,55	10.625,69
Elgoibar	11.558	5.739	5.819	38,83	297,66	2,30	5.029,81
Mutriku	5.349	2.720	2.629	27,65	193,59	1,03	5.178,12
Soraluze-Placencia de las Armas	3.949	1.977	1.972	14,03	281,47	0,54	7.378,55
Mendaro	2.148	1.082	1.066	25,28	84,97	0,51	4.232,51
Ermua	16.091	7.998	8.093	6,48	2.483,18	1,39	11.611,34
Mallabia	1.173	593	580	23,10	50,78	1,07	1.095,24


EREMU FUNTZIONALA / ÁREA FUNCIONAL

Debabarrena	72.843	35.956	36.887	210,10	346,71	11,17	6.521,07
-------------	--------	--------	--------	--------	--------	-------	----------

LURRALDE HISTORIKOAK / TERRITORIOS HISTORICOS

ÁLAVA/ARABA	325.518	160.154	165.364	3.041,87	107,01	157,82	2.062,56
BIZKAIA	1.140.662	548.872	591.790	2.215,19	514,93	201,81	5.652,05
GIPUZKOA	714.269	348.918	365.351	1.978,37	361,04	131,22	5.443,31

E.A.E./CAPV	2.180.449	1.057.944	1.122.505	7.235,43	301,36	490,86	4.442,14
-------------	-----------	-----------	-----------	----------	--------	--------	----------




3.- HIRI-EREDUA

3. adierazleak hiri-ereduaren ezaugarriak agertzen ditu, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrien proportzioaren bitartez, eta baita bizitegi erabilerarako eta jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruen proportzioa ere.


Datuen arabera, Deba eta Soraluzek ez dute lurzoru urbanizagarririk, ez bizitegi-erabilerarako, ez eta jarduera ekonomikoetarako ere. Lurzoru urbanizagarri gehien duten udalerriak Elgoibar eta Mutriku dira. Elgoibarren kasuan, 90-10 proportzioa du, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen alde, HAPOk erreserbatzen duen lurzoru-kantitatearen ondorioz. Mutrikuren kasuan, proportzioa 76-24 da, bizitegitarako lurzoruen alde, hirigunearen iparraldean dauden bizitegitarako lurzoru-poltsengatik. Mendarori dagokionez, lurzoru urbanizagarri guztia bizitegi-erabilerara zuzenduta dago.

UDALPLAN 2019	3 (a)	3 (b)	3 (c)
	Lurzoru urbanizagarria hiri lurzorurekiko portzentaia Porcentaje de suelo urbanizable respecto a suelo urbano %	Egoitzarako lurzoru urbanizagarri urbanizagarri lurzoru osoarekiko portzentaia / Porcentaje de suelo urbanizable residencial respecto a suelo urbanizable total %	Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri lurzoru osoarekiko portzentaia / Porcentaje de suelo urbanizable para AAEE respecto a suelo urbanizable total %
ESPARRUA			
ÁMBITO TERRITORIAL			
UDALERRIAK / MUNICIPIOS			
Deba	-	-	-
Eibar	14,30	35,55	64,45
Elgoibar	24,90	10,72	89,28
Mutriku	24,25	76,24	23,76
Soraluze-Placencia de las Armas	-	-	-
Mendaro	8,72	100,00	-
Ermua	20,95	16,00	84,00
Mallabia	11,21	11,19	88,81
EREMU FUNTZIONALA / ÁREA FUNCIONAL			
Debabarrena	14,56	27,01	72,99
LURRALDE HISTORIKOAK / TERRITORIOS HISTORICOS			
ÁLAVA/ARABA	23,63	37,37	62,63
BIZKAIA	18,59	60,76	39,24
GIPUZKOA	19,61	42,95	57,05
E.A.E./CAPV	20,43	47,67	52,33

Lehen grafikoan lurzoru urbanizagarrien guztizko proportzioa ageri da, udalerriko guztizko hiri-lurzoruekiko, baita Eremu Funtzionaleko eta EAEko batezbestekoekiko erreferentzia ere.



Bigarren grafikoan bizitegi-lurzoruen eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen proportzioa ageri da, guztizko lurzoru urbanizagarriekiko. Kasu horretan, ikus daiteke Elgoibar, Mallabia, Ermua eta Eibarren jarduera ekonomikoetarako lurzoruen proportzio handia dagoela, bizitegi-lurzoruekiko.



4.- BIZITEGI-GARAPENA

4. adierazleak udalerrri bakoitzaren bizitegi-ahalmena ageri du, lehendik zeuden etxebizitzekin eta aurreikusitako etxebizitzekin. Halaber, 100 biztanleko etxebizitza kopurua ageri du.

Ikus daitekeenez, Eibar, udalerrri handiena eta bizitegi-ahalmen handiena mantentzen duena izaki, hazkunde proportzional txikiena duena da. Beste muturrean, Mallabia, txikiena, hazkunde handiena garatu duen udalerrria da. Debabarreneko guztizko bizitegi-ahalmena 5.314 etxebizitzakoa da, eta horrek bizitegi-parkean % 16ko gorakada dakar, EAEko batezbestekoaren azpitik.

UDALPLAN 2019 LURRALDE ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL	4 (a). EGOITZA GARAPENA - DESARROLLO RESIDENCIAL			4 (b)
	Egungo etxebizitzak Nº de viviendas existentes Etx. - Viv.	Aurreikusten den etxebizitza gehikuntza Incremento de viviendas previsto Etx. - viv.	Aurreikusten den etxebizitza gehikuntza Incremento de viviendas previsto %	Etxebizitza kopurua guztira ehun biztanleko Número de viviendas totales por cada cien habitantes Etx./100biz. - Viv./100hab.

UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Deba	2.816	775	27,52	66,05
Eibar	12.975	1.376	10,61	52,88
Elgoibar	5.145	1.331	25,87	56,03
Mutriku	2.439	472	19,35	54,42
Soraluze-Placencia de las Armas	1.898	237	12,49	54,06
Mendaro	838	186	22,20	47,67
Ermua	7.168	823	11,48	49,66
Mallabia	305	114	37,38	35,72

EREMU FUNTZIONALA / ÁREA FUNCIONAL


Debabarrena	33.584	5.314	15,82	53,40
-------------	--------	-------	-------	-------

LURRALDE HISTORIKOAK / TERRITORIOS HISTORICOS


ÁLAVA/ARABA	153.514	49.450	32,21	62,35
BIZKAIA	511.511	80.971	15,83	51,94
GIPUZKOA	323.070	58.628	18,15	53,44

E.A.E./CAPV	988.095	189.049	19,13	53,99
-------------	---------	---------	-------	-------

Lehen grafikoan etxebizitza kopuruaren gorakada islatzen da, lehendik dauden etxebizitzaren kopuruarekiko, ehuneko gisa adierazita.



Bigarren grafikoan gutzitako etxebizitza kopurua ageri da, lehendik daudenak eta aurreikusitakoak, 100 biztanleko, Eremu Funtzionalarekin, Lurralde Historikoarekin eta EA Erekin alderatuta.



5.- ETXEBIZITZA-DENTSITATEA

5. adierazleak etxebizitza-dentsitatea aztertzen du, hiri-lurzoruetan lehendik dauden etxebizitzak, hiri-lurzoruetan aurreikusita dauden etxebizitzak eta lurzoru urbanizagarrietan aurreikusitako etxebizitzak kontuan hartuta.

Eibar eta Ermua hiri-lurzoruetan etxebizitza-dentsitate handiena duten udalerrriak dira, bai lehendik dauden etxebizitzei eta bai aurreikusitako etxebizitzei dagokienez. Beste muturrean Mallabia dago, dentsitate baxuenarekin. Lurzoru urbanizagarrietako dentsitateari dagokionez, Debak eta Soraluez ez dute bizitegitarako lurzoru urbanizagarrien erreserbarik; Mutriku dentsitate txikieneko udalerrria da eta Elgoibar, berriz, dentsitate handiena duen udalerrria.

UDALPLAN 2019 ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL	5. ETXEBIZITZA DENTSITATEA / DENSIDAD DE VIVIENDA		
	5 (a)	5 (b)	5 (c)
	Egoitzarako hiri lurzoruan dauden etxebizitzaren dentsitatea / Densidad de viviendas existente en suelo urbano residencial Etx./ha - Viv./ha	Hiri lurzoruan aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea / Densidad de viviendas prevista en suelo urbano Etx./ha - Viv./ha	Lurzoru urbanizagarrian aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea / Densidad de viviendas prevista en suelo urbanizable Etx./ha - Viv./ha

UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Deba	79,32	101,15	---
Eibar	161,16	175,71	65,71
Elgoibar	81,56	96,80	99,73
Mutriku	71,80	80,01	21,96
Soraluze-Placencia de las Armas	136,94	154,04	---
Mendaro	98,59	106,59	61,78
Ermua	140,69	153,90	53,19
Mallabia	49,11	62,96	35,44

EREMU FUNTZIONALA / ÁREA FUNCIONAL


Debabarrena	114,78	129,30	50,46
-------------	--------	--------	-------

LURRALDE HISTORIKOAK / TERRITORIOS HISTÓRICOS

ÁLAVA/ARABA	31,43	38,86	19,09
BIZKAIA	74,60	82,77	23,07
GIPUZKOA	71,37	79,34	40,75


E.A.E./CAPV	60,72	68,61	26,16
-------------	-------	-------	-------

Grafikoan, udalerrietako, Eremu Funtzionaleko, Lurralde Historikoetako eta EAEko datuak alderatzen dira.



6.- ARTIFIZIALTZEAREN / KALIFIKAZIOAREN EBOLUZIOA.

6. adierazleak lurzoruaren kalifikazioaren bilakaera adierazten du, bizitegitarako, jarduera ekonomikoetarako eta sistema orokorretarako (ekipamenduak, bideak, trenbidea eta zerbitzu-azpiegiturak). Horren bidez, artifizialtzeak EAE guztian 2005 eta 2018 bitartean izan duen bilakaera erakusten da. 2012ra arte hazkunde handiagoko bi joera berezi hautematen dira, eta joera egonkorragoa, 2012tik 2018ra.



Hurrengo grafikoan Debarreneneko Eremu Funtzionalerako artifizialtzea ageri da. Datuek plangintzak onartzearekin bat datozen aldaketa handiak agertzen dituzte; adibidez Eibarko HAPO aintzat hartzea (2008an behin betiko onartu zen) edo Elgoibarko HAPO (2012). Aldaketa horiek plangintza berriei egotz dakizkieke eta, horiek salbu, bilakaera arinki gorakorra da, azken urteetaraino, horietan kurba lautu egin baita.

